

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Menpekotasunari
aldebikotasuna deitzen zaio

IÑAKI ALTUNA > 11

PHILIPPE BLANCHET, soziolinguista:
«Gltofobia hizkuntza diskriminazioa da,
xenofobia edo homofobia bezalako
diskriminazioa» > 17

2017ko abenduaren 2a | XI. urtea • 546. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



EUSKARA KATALANAREN ISPILUARI SO

EUSKAL HERRIAK INBIDIAZ ETA KEZKAZ BEGIRATZEN DIO KATALUNIARI ASPALDION. LEHENAGOTIK ERE HAREN HIZKUNTZA PROZESUARI BEGIRATU IZAN DIO, ETA ARLO HORRETAN, ORAINGOZ BEHINTZAT, TXIKIAGOA DA KEZKARAKO TARTEA. ASKO LORTU DUTE, BAINA HIZKUNTZAREN ALDEKO BORROKAK SEGITZEN DU. > 12 Jon URBE | ARGAZKI PRESS

**Nola lortu zuten jihadistek
Ingalaterraren tamainako kalifa
herria eratzea?** 04

**Hiesa duten indiar emakumeak
boteretzeko kanpaina** 08

**Hizkuntza katalanak asko lortu
du, baina asko du lortzeko** 12


**Philippe Blanchet, glotofobia edo
hizkuntza diskriminazioaz** 17

**Dibortzio bat eta hamaika emozio
1702ko Donostian** 22

**San Simon eta San Juda, alerta
gorria heldu da** 25

In fraganti: Pierrot Laduche 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Iratxe Urizar:** Epaitegietako indarkeria

10 **Ula Iruretagoiena:** Lurraldearen ondare arkitektonikoa

11 **Iñaki Altuna:** Menpekotasunari alde bikotasuna deitzen zaio

16 **Amaia Ballesteros**

20 **Arantxa Urbe:** Amets orduak euskaraz

21 **Laura Mintegi:** «Me too»

27 **Mirari Martiarena:** «Paeta zarrak»

27 **Koldo Sagasti:** «Splash» eskoletan

31 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Ustezko kazetariak



{ datorrena } **Iratxe Urizar**

Epaitegieta indarkeria

Bost gizonen 18 urteko neska bat bortxatu izanagatik Iruñean egiten ari diren epaiketa bolo-bolo dabil komunikabide guztietan azken asteotan. Horren harira, arreta eman dit kontu batek: sexu-indarkeriari eta parekoei dagokienez, badaude horien kontura bizi diren, horrelakoekin aberasten diren, bufeteak. Benetako marrazoak dira abokatu horiek eta errugabetasun-presuntzioa suntsitzen duten frogetatik harago doaz: biktima kriminalizatzen dute, eta, sarri, ez dago jakiterik nor den epaitua (akusatu ala biktima bera) eta zein den portaera okerra (akusatuarena ala biktimarena berarena). Ez da atzo goizeko kontua.

Iruñeko kasuari erreparatuta, bestalde, aipatu beharra dago sare sozialek izan duten (eta izaten ari diren) rola. Sare sozialek eguneroko jardunari buruz informatzeko eta salatzeke izan duten garrantziari buruz ari naiz; esan daiteke gizartearen keza eta aldarri sendoa irudikatzen duela sare sozialen jarduera horrek, ikusi nahi duenarentzat. Froga iraingarriak prozeduratik kanpo gelditzeraino heldu dira, benetan oso ezohikoa epaile ahalguztidunei buruz ari garenean.

Epaitegietan arituak garenok ondo baino hobeto dakigu frogaren zama osoa biktimari dagokionean (torturatuak, emakume bortxatuak, esaterako) maiz nahastu egiten dela nor ari diren epaitzen, akusatua ala biktima. Hain da petrala eta aldrebestua indarreko sistema. Prozedurarekin zerikusirik ez duten frogak onartzen dituzte organo judizialek eta biktimaren bizitza pertsonalari edota sineskeri lotutako argudioak darabiltzate akusatuaren defendatzaileek. Horrelako prozedura bat bizi izan duenak ondotxo daki zeri buruz ari naizen.

Irudika dezagun bost akusatuak absolutu egiten dituztela (zeina, bide batez esanda, ez bailitzateke harritzekoa. Begiratu estatistikak). Kasua hori bada, biktima

marenak egin du. Salduta dago. Ez dezala espero goragoko auzitegi batek bere kasuari helduko dionik.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak sarri askotan gogorarazi dio Espainiako Erresumari ez duela Ituna betetzen, sistemak ez duelako bermatzen kasua goragoko organo batek berrikusiko duenik. Bada, bai, Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa jartzeko aukera, baina epaiketa ez da errepikatuko: kasuaren holako edo halako «balorazio formala» egitera mugatuko dira. Prozedura jarraitu du beheagoko auzitegiak? Ba, listo.

Gutxieneoak bete ez dituzten kasu bakanetan, agerikeriko horietan baino ez da egon aukera gora jotzeko (tortura-salaketen kasuetan, adibidez, itxurak gordetzeke lana ere ez zuten hartzen orain denbora bat). «Gora jotzea» diogunean, Europako Giza Eskubideen Auzitegiari buruz ari gara, ez Espainiako auzitegiei buruz,

Epaitegi kontuetan frogaren zama osoa biktimari dagokionean (torturatuak edota emakume bortxatuak, esaterako) maiz nahastu egiten da nor ari diren epaitzen, akusatua ala biktima

hauek oso baldintza zehatzak betetzen dituzten kasu jakinetan baino ez dira sartuko.

Lehen botatako hipotesiaren kasuan, esaterako, inork ez luke epaia ezbaian jarriko (prozeduran akusazioaren frogak behar bezala baloratuak ez badira ere; eta defentsaren frogak *sui generis* balioetsi badituzte ere). A zer panorama!

Bien bitartean, galbidera garamatzen espainiar sistema judizial horretan preso jarraitzen dugu emakumeok. Iragan ilunetik datozen arau, molde eta organoei eutsi dien sistema horrek gauzka harrapatuta. Estatuaren baloreen isla da haren sistema judiziala. Gure herriak aspaldi erabaki zuen Espainiarekin ez dagoela zereginik. •

ESTATU ISLAMIKOA

Inglaterraeren tamainako kalifa herria eratzea nola lortu zuten jihadistek?

Abu Bakr al-Baghdadi 2014ko ekainean aldarrikatu zuen Estatu Islamikoaren kalifa herria bere lurralde guztia galtzar den honetan, Ekialde Hurbileko muga historikoak kolokan jarri zituen Estatu Islamikoaren sorrerak eragindako harridurari eta, ondorioz, galderei heltzeko unea da. Nola demontre lortu zuten ehunka batzuk besterik ez ziren jihadistek –asko jota milaka batzuk– Irakeko bigarren hiri handiena den Mosul bereganatzea? Eta ostean mendean hartu zituzten gainerako hiri eta herriak? Zergatik ez zuten aurkitu inolako oztoporik, ezta herritarren oposizioerik ere? Nondik nora eskuratu zituzten nolabaiteko Estatu bat eratu ahal izateko eskumena eta gaitasuna? Galdera ugari daude mahai gainean.

Argi dago 2014an Siriako gerran aurrez aurre ziren ia aktore guztiek, oro har Ekialde Hurbileko egoera gatazkatsuan zeresana duten guztiek, euren interes partikularrak zituztela Estatu Islamikoa bezalako talde bati egiten uzteko. Eta guztiek diodanean, Damaskotik bertatik hasi eta Turkia eta Saudi Arabiaraino noa, AEBak ahaztu gabe.

Siriako Gobernuarentzat interesgarria zen gerra galtzeko zorian zegoen garaian jihadistak bihurtzea matxinada militarren aitzindari. Siriako Armadak bizirauteko nahiko lan zuela kontuan hartuta, atzerapauso taktiko interesgarria zen. Behin mahai gainean “erreboltari=jihadista” ekua zioa jarrita, denboraren eta bere aliatuen ezinbesteko laguntzarekin, iritsiko zitaion Gobernuari Estatu Islamikoa-

ISIS-AREN ESTATU SAKONA / Dabid LAZKANOITURBURU

Milaka batzuk baino ez ziren Al-Qaeda Irakera zituen jihadistak. Eta ez zeuden unerik onenean. Baina Siriako gerraren lokartzea eta Irakeko suniten egonezina lagun, Baath alderdiko kide ohiena tartean, jakinduria eta baliabideak lortu zituzten Estatu Islamikoaren izenean Ekialde Hurbila kolokan jarriko zuen Estatua eratzeko.

ren aurka gogor jotzeko unea, azken asteotan Deir ez-Zor hirian ondo baino hobeto erakutsi duten moduan.


Matxinatu siriarren kalkulu ere taktikoa izan zen, baina kasu honetan guztiz okerra. Al-Assad boteretik kentzeko denak balio zuela iritzita, jihadisten laguntza onartu zuten, epe motzera be-

raien kalterako izango zela aurreikuszeko modukoa bazen ere. Estatu Islamikoak eta Al-Qaeda –erabat ahaztuta badugu ere, bizirik eta indartsu jarraitzen du Siriako Al-Qaedaaren adarra den Al-Nusra Fronteak– matxinadaren buruzagitza militarra eta ekimena bereganatu zituzten. Siriako Armada Askea koalizio

militarra urtu egin zen eta bere agindupeko dozenaka *khatib* edo brigadak ez zuten zalantzarik egin: jihadisten artean jasotako “eskaintzen” artean hautua egin eta batean edo bestean integratu ziren. Estatu Islamikoak “iraultza-zen” gotorleku izandako Raqqa hiritik erreboltariak bidali eta bere kalifa herriaren hiriburu gisa izendatu zuenean, bereak egin zuen matxinadak siriarentzat.

Turkiak, Saudi Arabiak eta oro har matxinada bultzatzen eta bide batez baldintzatzen zuten eskualdeko erregimeneke ere, matxinatu siriarren kalkulu bera egin zuten: Damaskoren aurka zegoen orori eman behar zitzaion laguntza. Gainera, Ankararen, eta batez ere Riaden kasuan, jihadismoaren eta islamaren interpreta-

Behoko irudian, Abu Bakr al-Baghdadi kalifa.
GAUR8



zio itsuenen arteko muga labainkor eta estuak kolaborazio taktikoaren hautua indartu zuen. Etorkizunean Estatu Islamikoa bere "aita pontekoen" aurka altxatuko zen arriskua ez zuten kontuan hartu, "gero gerokoak" lelo hartuta.

AIRE ERASOAK NON?


Gauza berdina esan daiteke AEBen jarrerari buruz ere. Pentagonoak Estatu Islamikoa egiten utzi zion, Irakeko basamortuetan konboi militar jihadistiei hara eta hona mugitzen lagaz airetik bonbardatu gabe. Horrela, izan ere, Sirian bazterraz nahasteaz gain, Bagdadeko Gobernuari, Irango sukurtsalari hain zuzen, arazoak sortzen zitzaizkion.

Argi dago, horrenbestez, Siriako gerra aukera ezin hobe zela Estatu Islamikoa indartu eta kalifa herria eratzeko. Baina hori ez da nahikoa jihadistismoaren fenomeno berri eta historiko honen bilakaera ulertzeko. Taldearen jatorria Iraken dago. Izan ere, Irakeko Estatu Islamikoak Irakeko eta Siriako Estatu Islamikoa izena hartu zuen 2013an, ondoko herrialdea gerraren bigarren urtean sartuta zegoenean.

Estatu Islamikoaren jaiotzak AEBen 2003ko Irakeko inbasioan du data. Okupazioa hasi eta berehala erresistentzia armatuak hiru bide hartu zituen. Lehena, Saddam Husseinen erregimenaren nostalgiko eta Baath alderdiko kideena. Bigarrena, islamista abertzaleena. Bai batak bai besteak, AE-Betako Armada eta kolaboratzaileak zituzten jomugan. Hirugarren hanka, berriz, nazioarteko jihadistena zen. Abu Mussab al-Zarqawi jordaniarraren agindupean, Al-Qaeda-ren Irakeko adarrak herrialdeko gehiengo xiita zuen etsai

Siriako gerraren hastapenetan, ia aktore guztiei, Damaskotik bertatik hasi eta Ankara eta Riaderaino, Washington ahaztu gabe, komeni izan zitzaizen jihadistiei egiten uztea

Ahulduta eta lidergo argirik gabe zegoen Irakeko Al-Qaeda Siriako gatazka baliatu zuen gerora Estatu Islamikoa eratzea ahalbidetu zion jauzi handia egiteko



Saddam Husseinen aurkako irudi bat, Bagdaden. AHMAD AL-RUBAYE | AFP

nagusi, bai behintzat bere biktimei erreparatzen badiegu.

Urte haietan, hiru taldeak noizbehinka elkarlanean aritu ziren, "nire etsaiaren etsaia nire laguna da" arestian aipatu logika jarraituz. Hala ere, ordurako, jihadistek osatzen zuten jada talderik indartsuena. Gainera, Irakek 2006an eta 2007an pairatu zuen gerra zibil sektarioak, batik bat Al-Qaedak neurririk gabeko atentuekin bultzatu zuena, jada ahulduta zeuden Baath alderdiko kideen eta islamista abertzaleen gerrillentzat azken kolpea suposatu zuen. Xiitek Irakeko suniten aurka jo zuten mendeku bila, eta bi milioi inguruk ihes egin behar izan zuten Bagdadetik iparraldera edo erbestera. Baath alderdiko milaka kide erail eta desagerrarazi zituzten xiiten heriotzaren eskuadroiek.

Gerra zibilak etsaien arteko talka areagotu bai, baina sin-

plifikatu ere egin zuen. Al-Qaeda ez zuen, ordea, egoera baliatu. 2006ko ekainean AEBen eraso batean hildako Zarqawik ez zuen ezagutu taldearen krisia, baina ordurako gogaituta zeuden sunitak atentatu bortitzekin eta tentsioa areagotzeko estrategiarekin. Jihadistak, gainera, tribuen arteko orekan oinarritutako egitura soziala kolokan jartzen ausartu ziren. Egonezin horretaz baliatuz, Pentagonoak dirua eta armak eskaini zizkien tribu sunitei, eta tribuok Al-Qaedaaren aurkako Shawa (Esnatzea) mugimendu armatua eratu zuten. Jihadistek tribu buruzagien aurkako atentatuekin erantzun zuten, herritarren haserre areagotuz. Atzera egiteko ordua zen. Erabat ahulduta, eta lidergo argirik gabe, Al-Qaeda "irakiartze" prozesu bati heldu zion, garai hobeak noiz iritsiko zain. 2010eko maiatzean Estatu Islamikoa sortu eta

«MILIZIA XIITAK BAINO ZINTZOAGOAK DIRA HAUEK!»

«Hauek, Bagdadeko Gobernu xiitarekin eta bere miliziekin alderatuta, zintzoagoak dira!». Horrela azaldu zion "The Guardian" egunkariko kazetari bati Mosulgo biztanle batek hirian bizi zen egoera 2015eko ekainean. Antzerako testigantzak entzun zitezkeen Siriako hainbat eskualdetan ere, non herritar askok begi onez hartu zuten Estatu Islamikoaren aginte gogorra, hainbat urtez matxinadaren «gerra jauntxoan» gehiegikeriak jasan ostean. Kalifa herriaren desagertzea emango digu agian bertako bizitza benetan nolakoa zen jakiteko aukera -Iraken eta Siriaren zentsura gainditzetik baldin badago-. Baina argi dago, lehen urteetan behintzat, Estatu Islamikoa gai izan zela nolabaiteko doako hezkuntza eta osasun sistemak eratu eta mantentzeko, petrolio eta kotoi kontrabandoak eta beste diru iturri batzuek eskainitako baliabideekin (zergak, bahiketak, kanpoko diru laguntzak...). Orain dela ehunka urtekoa zirudien ultraeskuineko Estatu mafiosoak eratu zuten horrela, hasieran herritar askoren onospena izan zuena.



Abu Bakr al Baghdadi izendatu zuen buru. Lau urteko epean, taldeak Ekialde Hurbila hantkaz gora jarriko du Irak-Siriatik hasi eta islamaren lurralde osora (*Umma*) hedatzea xede duen Estatu iragarritz.

URTE LUZETAKO PLANIFIKAZIOA

Ahulduta bai, baina Iraken go-tortutako jihadistak ez ziren ezer egin gabe geratu. Gazteak erakartzen saiatzeaz gain, lan handia egin zuten Segurtasun Indarren agintaritzan ahuldu eta herritar suniten Bagdadeko Gobernu xiitaren mesfidantza areagotzeko. Ohi dez, lan horretan Gobernu bera izan zuten "lagun".

Obamaren aginduz AEBak Iraketik irteten hastearekin bat, suniten egoerak okerrera egin zuen. Bagdadek Sawako milizia Armadan sartuko zituela agindu bazuen ere, soldatarik gabe utzi eta tribuak babesik gabe geratu ziren. Egoera horretan eman zen Mosulen eta sunitak gehiengo diren beste hiri eta herrietan Irakeko Udaberri Arabiarra,

Egipton, Tunisian eta beste hainbat herrialdeetan gertatzen ari zenarekin alderatuta guztiz ahaztuta geratu arren. Matxinada herrikoi horrek, eta batez ere Bagdaden erantzun bortitzak sortuko haserreak, aukera paregabea eskaini zien jihadistei estatuaren hutsunea nagusi zen lekuotan.

HUTSUNEA BETETZEKO, BAATH

Estatuaren hutsuneari haserrearekin erantzutea gauza bat da, baina beste kontu bat da hutsune hori Estatu zantzua duten egiturekin betetzea. Eta horreka daiteke Baath alderdiaren parte hartzearen inguruko hipotesia. 2014an, Saddam Husseinen eskuin esku izandako Ibrahim al-Douriren Naskbandi Ordenaren Armada gerrillak Estatu Islamikoa inposatzeko jihadistekin bat egin zuen zurrumurrua zabaldu zen.

"Der Spiegel" astekarion 2015ean Christoph Reuter kazetariak argitaratu zuen erreportaje batean ere, Baath alderdiaren eta Estatu Islamikoaren arteko ustezko elkarlana sala-

Siriako Palmiran atxilotuei lepoa mozteko ekitaldiak egiten zituen Estatu Islamikoak, eraikin greko-erromatarren aurrean. GAUR8

2007 eta 2010 bitarteko porrotaren ondoren, jihadistek «irakiartze» prozesu bat hasi zuten, Segurtasun Indarrak ahulduz, gazteak erakarriz eta Bagdadekiko suniten haserrea bultzatuz

Saddam Husseinen Baath alderdiko kide izandako hainbat koadroren eskutik nolabaiteko estatu egiturak eratzeko esperientzia eskuratu zuen Estatu Islamikoak

tzen da. Bertan ustez Saddam Husseinen garaiko koronela eta zerbitzu sekretuetako ardura izandako Haji Bakr aipatzen da. Zehazki, Al-Bagdadi kalifaren gertu-gertukotzat jotzen da Haji Bakr, eta Estatu Islamikoaren benetako buru gisa aurkezten da. Haji Bakr (Samir Abd Muhammad al-Jilafwi benetako izenez) kalifa herria sortu baino hilabete batzuk lehenago hil zen, Tal Rifaat herrian matxinatu siriarrarekin izandako liskar batean, baina Estatu Islamikoa eratzeko dossier luze eta oso bat utzi omen zuen, astekari alemaniarraren arabera.

Hipotesiok fidagarriak diren edo ez ebaztea auzi garrantzitsua da. Bada, Amaury Gillierrek ekainean "Orient Express" aldizkari digitalean argitaratu eman zuen analisisian ohartarazten zuenez ("Les baasistes jouent-ils vraiment un rôle central au sein de l'organisation de l'Etat Islamique?"), Haji Bakr buruzagiaren gaineko informazioak eskaini zituzten iturriak matxinatu siriarren edota Al-Qaedaren ingurukoak ziren. Iturriok Estatu Islamikoaren aurkako lehian «lekuko interesatuak» izateaz gain, Al-Qaedari Estatu Islamikoaren jatorri islamiarra ukatzea eta Baathen «sozialismo arabiarrekin» kutsatzea komeni zitzaizola gogoratzen du.

Christoph Reuterren erreportajearen akats ugari daudela

salatzen badu ere, Amaury Gillierrek onartzen du Saddam Husseinen Armadako kide ohi askok Estatu Islamikoarekin bat egin zutela, baina batez ere «bizirauteko eta beren lurraldean bizitzen jarraitzeko». Kontutan hartu behar da, gainera, irakiar gehien-gehienak egon zirela erregimen zaharreko Armadan, bai soldadu bezala, bai soldaduskan bai erreserban. Horrek ez du esan nahi, ordea, guztiak «Baath alderdiko kide sutsuak» zirenik. Aitzitik, eta Gillierrek irailen beste artikulu batean («Irak. De Saddam Hussein a l'organisation de l'Etat Islamique, ruptures et continuité») gogora ekartzen duen moduan, Irakeko Armada izan zen Saddam Husseinen Baath alderdiak makurraraztea lortu ez zuen erakunde bakarrarenetarikoa. Zibilekiko armaden ohiko mesfidantza ahaztu gabe, Iranen aurkako gerrako eta Kuwaiteko inbasioeko porrotaren ondorioz, militarren asko aldenitu ziren erregimenetik. Iraken aurkako blokeoak soldaduen eguneroko bizitza zaildu eta morala suntsitu zuen. Horrela ulertzen da AEBen inbasioari aurre egiteko Irakeko Armadak agertutako grina eskasa.

KOADROAK ETA OPORTUNISMOA

Armada aparta, ordea, jakina da Baath alderdiko dozenaka koadro edota Saddam Hussein-

nen jarraitzaile sutsu ugari Estatu Islamikoan sartu zirela, zuzendaritza postu garrantzitsuak lortuz asko, tartean zerbitzu sekretuetako kide ohiak. “Haaretz” egunkari israeldarrak 150 inguru zenbatu zituen.

Iturriekin kontuz ibili beharra dagoela ahaztu gabe, Gillierrek berak onartu egiten du neurri batean fenomeno hori eman zela. Baina ez du inolaz ere uste Baath alderdiko kideen kasuan elkarlanak hautu oportunistak bati erantzun zionik. Bere iritziz, 2006ko eta 2007ko gerra sektarioak Baath alderdiak aldarrikatutako panarabismoaren berezko heriotza ekarri zuen, erlijioak eta sakabanaketa komunitario eta sektarioak gainditzea helburu zuen ideologiarena. Hurrengo urteetan Estatu Islamikoarekin bat egin zuten koadroek, beraz, Baath alderdia guztiz ahaztuta zuten Gillierren ustez.

Horrela bada, Al-Qaedako adar gisa sortutako taldeak, bere ahuldadea gainditzeko, “ira-

kiartzte” prozesu bati ekin zion, eta, prozesu horretan, erakartzeko lan handia egin zuen noraez politiko eta existentzial batean ziren suniten artean, tartean bizirik geratzen ziren Hussein alderdiko koadro ohiak. Horien jakituria eta esperientziarekin, Siriako gerra aukera paregabea bilakatu zen Estatu Islamikoarentzat benetako saltoa emateko. Estatua eratzeko plan horretan, erregimen zaharrak botereari eusteko zituen estrategiak bere egin zituen kalifa herriak.

Adibidez, 2006ko eta 2007ko hanka-sartzeak gogoan, jihadistek tribuen arteko harremanak, tribuen pisua errespetatzeko hautua egin zuten, batez ere Anbar eskualdean. Saddam Husseinek egiten zuen moduan, tribu agintariei karguak eskaini zizkieten jihadistek beraien leialtasuna ziurtatzeko. Estrategia hori, tribu agintarien fideltasuna erostearena, Irakeko mugatik Siriara ere eraman zuten. Azken finean,

Estatu Islamikoaren kalifa herriaren sakoneko oinarria, Irakeko sunitek, Baath alderdiko kide ohiak tartean, jasaten zuten etorkizun eza da; bizi zuten noraez politiko eta existentziala

Irakeko suniten bazterketa egoerari irtenbidea ematen ez zaion bitartean, sortuko da Estatu Islamikoaren oinordekorik. Agian, gainera, are okerragoa. Sakon-sakonetik

Baath alderdiko jarraitzaile sutsu zein azaleko izan, Estatu Islamikoko buruek ondo ikasi zituzten Saddam gerra garaian herritarrak kontrolpean mantentzeko teknika eta metodoak. Erregimen zaharrak herritarren benetako nahien gainetik irautea posible egin zuten metodoak.

Eta jakinduria horrek eman zion Estatu Islamikoari kalifa herriaren kontrola mantentzeko ahalmena. Estatu Islamikoko hiri eta herrietan jihadisten penetrazioa ez zen sakona. Beraz, derrigorrezkoa zuten, ekimen militarra man-

tentzeaz gain, gobernu-sistema eraginkorra izatea. Gerra galtzen zihoazen heinean, gainera, gero eta ageriagoa zen ez zutela jendearen babes handirik. Mosulen eta Raqqan herritarrak giza-ezkutu bezala ere erabili zituzten, eta, horretarako, izuaren politika ezinbestekoa da. Horretan ideologikoki trebeak ziren jihadistak, eta, gainera, Saddam gerra garaian hezitako maisuak ere bazituzten...

Amaitzeko, argi utzi behar da gehiegikeria dela esatea Estatu Islamikoaren oinarria Baath alderdiko nostalgikoek eratu zutela, euren esperientziak eragina izan bazuen ere. Irakeko sunitek, Baath alderdiko kide ohiak tartean, bizi zuten ezinegonean dago sakoneko oinarria. Eta diskriminazio egoera horri, etorkizun ezari, buelta ematen ez zaion bitartean, sortuko da Estatu Islamikoaren oinordekorik. Agian, gainera, are okerragoa. Sakon-sakonetik.

Estatu Islamikoaren konboi militar bat.
GAUR8



«VIDAS EN +»

Hiesa duten indiar emakumeak boteretzen laguntzeko kanpaina

 **JENDARTEA** Maider Iantzi Goienetxe

Sara Anton, Eneritz Arizmendiarieta eta Nagore Osa, Lein graduko ikasleak dira. Hiesa duten indiar emakumeei laguntzeko proiektu bat bultzatzen ari dira. Atzo, Hiesaren Aurkako Egunean, «crowdfunding» kanpaina abiatu, eta Donostia, Bilbo eta Gasteizen ekitaldi bana egin zuten. Martxoan, Indiara joanen dira hango elkarteekin lan egitera.

Sara Anton debarra, Eneritz Arizmendiarieta bergararra eta Nagore Osa zumaiarra Lidergotza, Ekintzailetasuna eta Berrikuntza (Lein) graduko ikasleak dira. 20 urte dituzte. Taldekide dituzte Ainhoa Peña eta Anne Campo gasteiztarak. SoytuCompany elkarteak dira lehenengo laurak eta bosgarrena Meikinn-ekoa. Calcuta Ondoan gobernu kanpoko erakundearekin batera lantzen ari dira hiesa duten indiar emakumeei laguntzeko proiektua. Atzo, Hiesaren Aurkako Egunean, abiatu zuten *crowdfunding* kanpaina. Hilabete iraunen du.


Urtarrilean Txinara doaz eta bertatik jarraian, martxoan, Indiara. Bi hilabete emanen dituzte leku bakoitzean. Finantzaketa kolektiboko kanpainarekin lortuko duten dirua giza immunoeskasiaren birusa duten indiar emakumeentzat izanen da. «Baina emakumeen ahalduntzearen borroka nazioartekoa dela ikusita, dirua jartzen duen jendeari, kantitate batetik aurrera, haziak dituen txartel bat emango diogu. Bertan emakumeak ahalduntzeko esaldi bat idatzi eta Gabonetan oparitzeko izan daiteke. Hala hemengo emakumeen ahalduntzea bul-

tzatuko dugu sinbolikoki eta, aldi berean, ekonomikoki Indian lagunduko dugu», esplikatu dute gazteek.

Lotura puntu bat aurkitu nahi izan dute Indiako kausa honen eta Euskal Herriko emakumeen borrokaren artean, hemen inpaktua sortzeko eta han ekonomikoki eragiteko. Inpaktu kanpainako ekintzetako bat «Café Condón» da. Donostia, Bilbo eta Gasteizko hainbat tabernatan kafearekin batera gailera bat emanen dute sorpresaz. Paperean bertan honako mezua izanen du: «Norberak aukeratzen du, kondoa edo hiesa. Eta barrenean kondoi bat. Atzealdean, bertze mezu bat agertuko da: 'Indiako emakumeek ez dute aukeratzeko eskubiderik'». Azkenik, kanpainaren bideora sartzeko URL kodea izanen du paperak.

HIESDUNEN %40, EMAKUMEAK

Jendea animatuko dute mezu bat idatzi eta argazki batekin sare sozialetan zabaltzera, #vidasen+ traolarekin. Bideoak ere grabatu dituzte Zuriñe Hidalgo abeslariarekin, Elena Irureta aktorearekin eta Nerea Mazo «Goazen» telesaileko protagonistarekin. «Kanpaina honekin komunikatu nahi dugu zergatik giza immunoeskasiaren birusa duen emakume batek ez duen bizirauteko au-



kerarik Indian eta hemen, berriz, bai. Hiru faktore sozial daude: India pobrezia egoeran dagoen herri bat izatea, kulturagatik prebentzioa ukatzea (kondoiak ezin dira erabili, eskatuz gero, errespetu eta konfiantza falta bezala hartuko du zure ohekideak) eta emakume izanik baliorik ez izatea, ez inporta izatea zer gertatzen den zurekin. Hiru arazook zutabe hartuta, transmititu nahi duten mezua da hiesaren medikamentuak garatuta egon arren jendartean ez dagoela garapen hori eta horregatik gertatzen direla egoera larriak.

Indian, hiesa duten biztanleen %40 emakumeak dira. Kontuan izanda bertze herrialdeetan %10-18 bitartean direla emakumeak, datua deigarria da. «Bertan gizon ezkonduak hainbat emakumerekin dituztenez sexu harremanak, beti prebentziorik gabe, eritasuna kutsatzen dute. Bestetik, duela



Ezker-eskuin, Nagore Osa, Sara Anton eta Eneritz Arizmendiarieta, Leinn graduiko ikasleak. Alboko orrialdeko irudi txikietan, indiar emakumeak.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS
Maite IRULEGI

urte batzuetatik mito bat zabaltzen ari da, batez ere Kalkutan, dioena emakume birjinekin erlazio sexualak izateak hiesa kentzen duela. Ezjakintasun eta matxismoaren eraginez, hiesa duten emakumeen kopurua handitzen ari da».

Ikasleek adierazi dutenez, emakume batek ez du bere gorputzean edo bizitzan aukeratzeko eskubiderik. «Gizon bat etortzen bazaizu, bai edo bai berarekin harreman sexualak izan behar dituzu. Birjinak diren emakumeen inguruan sortu den sinesmen hori dela-eta normalean neska oso gazteekin izaten dituzte harremanak». Indore inguruan kokatzen da kanpaina, bertan daudelako hies kasu gehien.

Hara joanen dira Anton, Arizmendiarieta eta Osa, bertako Wishwas elkartearekin lan egitera. Hangoen eta hemengoan elkarlanarekin, proiektua iraunkor egitea da

xedea. Ekintzailetasunaren inguruko tailer batetik, mediku kontsulta batean laguntzera; momentuan dituzten beharren arabera emanen dituzte zerbitzuak.

IKASTEKO ERA ERABAT EZBERDINA

Oñatin ikasten dute. «Baina, normalean, ez gara aste oso bat egoten bertan. Euskal Herriari bueltak ematen dizkiogu egia esan», diote irriz. Taldean egiten dute lan beti, hori da Leinn graduaren oinarrietako bat. Talde bakoitzak irakasle bat du, entrenatzaile bat bezala. «Oso gustura gabilta. Oso esperientzia transformazionala da. Bizitza aldatzen dizu. Hankaz gora jartzen dizu. 17 urterekin bat-batean enpresa bat daukazu, ezagutzen ez dituzun hamabost pertsonarekin. Ez dakizu ezer enpresa bat zabaltzeaz eta esaten dizute: joan erregistrora eta galdetu, orain fakturatu...».

Kanpainen parte hartzeko ohiko bidea Internet da (Goteo.org). «Café Condón» ekimenarekin bat egin duten tabernetan ere aukera emanen dute. Enpresa gisa ere kolabora daiteke

Gazteek hazidun txartelean mezua idaztera animatu nahi dute jendea, indiar emakumeen ahalduntzean laguntzeko, eta, bidenabar, hemengoenean ere bai

Enpresak helburu batzuk ditu. Kanpotik gehien ikusten dena ekonomikoa da, baina 30 kontadore dituzte. Beren burua ebaluatzen dute. «Ez dugunez betiko klase eta azterketarik, bizi dugun esperientzia oso ezberdina da. Gu sortzen ari gara egunero gure karrera eta gure bidea. Entrenatzailea dago pixka bat gidatzeko eta oso muturrera joaten bagara mozteko, baina, normalean, dena gure kabuz egiten dugu».

Hirugarren mailan daude eta kooperatiba bat sortzeko aukera dute. Orain elkarte bat dira eta oraindik ez dakite zer egingen duten. Bidaia hau inportantea izanen dela eta taldea markatuko duela uste dute. «Baliteke Indian edo Txinan kontraturen bat itxi eta norbait han bizitzen gertatzea». Erabat irekita daude.

«Karrera bukatzean, zer?». Aunitz galdetzen diete hori. Ingurukoek ez dituzte ulertzen eta gurasoak kezkatu egiten dira. «Ez dakit» izaten da erantzuna, irribarre batekin. «Irunen hasi zen karrera, gero Oñatin, Bilbon... Ondoren, ikasleek beraiek unibertsitate bat ireki dute Mexikon, beste bat Txinan, orain Korean ari dira... Metodologia berritzailea da eta gaur egungo enpresen egoerarako egokia da. Sortzen gabilta, gure gustuen arabera. Lau urte dira nahi duguna probatzeko», azaldu dute.



Ula Iruretagoiena - @ulissima5
Arkitektoa

Lurraldearen ondare arkitektonikoa

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

3 BEGIRADA:

Ondare materiala lurralde baten historiaz eta identitateaz hitz egiten duten objektuek osatzen dute. Erabile-raren higadura erakusten duten egur edo metal zati dekoratuei altxor balioa eskaintzen diegu behin denborak erabilgarritasuna lapurtu dienean. Balioa, prezioan baino, iraganari buruz informazio baliagarria emateko ondare materialaren gaitasunean kokatzen dugu, berezko testuingurutik atera eta modu autista eta isolatuan irakurtzen dugun arren. Ondare materialaren zakuan erabilgarritasun-maila eta balio-monetario zeharo ezberdineko objektuak sartzen dira, “ondare” titulupean identitatearen ezagutzari egiten zaion ekarpena beste balioen gainetik dagoelako. Hain da esanguratsua bere baitan duen informazioa, museoa “ondarearen etxe” bilakatzen dugula, baita zaindari propioekin ere –zaharberritzailea ondarearen bizitza zahartuari luzapen duina emateko jaio da–.

Ondare arkitektonikoa, aldiz, bizigarriak diren espazioz osatuta dago, eta, ondorioz, ez du ondare material trataera jasotzen. Jatorrizko funtzioa galdu eta zaharrituta ageri den ondare etiketatutako eraikin bati begiraterakoan, ondare arkitektonikoak berak jartzen gaitu eraikinari zer-nolako etorkizuna eman galderaren aurrean: museo bilakatu, berriz erabile-ran jarri edo suntsitu, horra hor aukera polarizatuen arteko borroka. Ez dago beste ondare materialik horrelako bidegurutzan jartzen gaituenik. Erabakiaren muinean ondareak zenbateraino hitz egiten duen gure identitateaz dago, neurgarria balitz bezala. Gainera, ondare material mu-seifikatuekin egiten ez dugun bezalaxe, ondare arkitektonikoari etekin

ekonomikoa atera nahi izaten diogu, ahalik eta mozkin handiena posible bada –ongi hezitako kapitalismoaren seme-alabak gara eta–.

Baina arkitekturako ondarearen etorkizunari buruzko afera ez da modu egokian ebatziko auzia eraikuntza arkitektonikoen hormen baitara mugatzen badugu. Eraikin baten bizitza luzatzeko erabakia hartzean, zein elementu arkitektoniko mantendu eta nola eraberritu eraikina izan ohi da eztabaida. Egiteko horri garrantzia kendu gabe, arazoaren aldagai nagusienetakoa gutxitan hartzen da kontuan: ondare arkitektonikoa lurraldearen eta lurraldetasunaren ikur da, eta, hortaz, ezinbestekoa da eraikinok lurralde ikuspegitik duten balioa aztertzea. Nabe industriak, jauregiak, dorretxeak edo base-riak euskal lurraldearen gertakizun ekonomiko eta kulturalen ondorio arkitektonikoak –materialak– dira. Gai-

nontzeko ondare materialekin alderatuz, ondare arkitektonikoaren identitatea lurraldean lekututa dago. Eraikinen arkitektura aldaketa bakoitzak garai historiko baten lurralde-baliabideen berri ematen digu, eraikuntza teknikak jakintza mailan erakusten dizkigu eta ustiagarriak ziren materialez hitz egiten digu. Ondare arkitektonikoa paisaian txertatuta dago, paisaiaren parte da, paisaiaren gora-beheren ondorio zuzen.

Ondare arkitektonikoaren berreskurapenari ezin zaio ekintza indibidual eta berreraikitze ariketa gisa aurre egin. Ondareak funtzio berria eskuratzea nahi baldin badugu, ondareak berriz ere lurraldean txertatzeko bidea aurkitu beharko du, tokiko dinamiken erakusle izateko. Derrigorrean, lurralde natural eta kultural baten birpentsatzearekin batera etorriko da hori, eraikina lurraldearen sistema funtzionalaren parte eginez. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Menpekotasunari aldebikotasuna deitzen zaio

Azken egunotan aholpeka entzun dugu Iberdrolak berak exijitu diola EAJri zergen beherapena. Bestela, enpresak bere egoitza aldatzeko aukera pentsatu beharko zuela. Thriller eleberriak ederki janzteko moduko anekdotak entzun ditugu horren harira. Beraz, hauxe dugu oraintxe panorama: 155. artikulua bitartez, Estatuaren mehatxua aktibatuta egoteaz gainera, botere ekonomikoek nagusitasuna indartu dute.

Kataluniako agintariak zanpatu dituzte, eta EAekoek, aldiz, gogotsuago heldu diote egoerari, berriro ere beste batzuek eragindako astinaldiari probetxu aterako diotelakoan. Arbolaren eta intxaurren bertsioa gaurkotua, nonbait. Kasu egin beharko dute, ordea, Estatuan askori antzematen baitzaio autonomien kontu hori murrizketaren bitartez bideratzeko gogoia.

Non daude ekuazio horretan herritarren nahi eta beharrak? Gasteizko Legebiltzarreko talderik txikienaren irizpideak gailentzea oso adierazgarria da. Guardia Zibilak inposatzen ez duena enpresa handi bateko administrazio kontseilu batek egingo du, eta horietan denetan PP agertuko da, nahiz eta ordezkatzeko duen herri borondatea txikia izan.

Pasa ziren boz bidez irabazteko gogo haiek, PPko Mayor Orejak eta PSEko Redondo Terrorosek bat egin zutenean Ibarretxeri aurre hartzeko. 600.000 boto lortu zituen EAJko hautagaiak 2001ko hitzorduan, nahiz eta abstentzioa inoiz baino txikiagoa izan zen eta hainbestetan aipatu izan ohi den «gehiengo isil» horrek espainiar konstituzionalismoaren garaipena ekarri behar zuen ezinbestean. Mayor Oreja lehendakari izateko parioa galdu zuten, baina nagusitasunari eusteari ez zioten uko egin. Estrategia? Estatuaren indarraren ordezkari bilakatzea. Hor konpon bozak eta

demokrazia. Horren gailurra? Ezker abertzalearen ilegalizazioa, orduan lortu baitzuten «gehiengo» Patxi Lopez lehendakari hautatzeko. Herri borondateak eman ez zion garaipena izan zen, oinarririk gabekoa.

Ezker abertzalearen estrategia aldaketak eta ondoren sektore horri hauteskundeetan parte hartzeko sortutako aukerak oso bestelako gehiengoak azalari zituzten. ETAren borroka armatua amaitutakoan PPK aparra bezala egingo zuela gora esan zuen alderdiko orduko buruak, Alfonso Basagoitik. Ameskeria.

Haien proiektua Estatuaren proiektuari lotuta dago, eta horrek ez du erakargarritasun handirik. Iniestak gol asko sartu beharko lituzke. Beste kontu bat da Espainia deritzan proiektu horrekiko oso hedatua dagoen urruntasuna burujabetza prozesu baterako nahiko

Guardia Zibilak inposatzen ez duena administrazio kontseilu batek egingo du, eta horietan denetan PP agertuko da, nahiz eta ordezkatzeko duen herri borondatea txikia izan

elikagai izatea. Eta hortxe sartzen da jokoan EAJ, egonkortasuna eta lasaitasuna eskaintzeko. Euskal oasia agintzen dute basamortua ezkutatzeko. Eta etorkizunerako? Aldebikotasuna.

Aldebikotasuna ez da gauza txarra, ez horixe. Beharbada, ezker abertzalea zenbaitetan zertxobait nahastu da kontzeptua bera infernuko sutara botaz. Aldebikotasunaren arazora bestelakoa da: ez dugula inoiz ezagutu eta gaur egun ez dela aukerarik ere eskaintzen, menpekotasuna dela jaun eta jabe. Horixe da Urkulluk estali nahi duena, oasiaren palmondoaren azpian sartuta. Benetako itzala, ordea, Iberdrolako dorreak eta La Salveko kasernak ematen dute. •

KATALANA

Hizkuntzaren normalizazioan urrats handiak eginda ere, asko dago egiteko

📁 **HIZKUNTZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Euskal Herria Kataluniara begira bizi da aspaldion, inbidia-aren eta kezka-aren arteko arretaz. Lehenago ere begiratu izan du, hango eta hemengo hizkuntza egoerak alderatzea saihestu ezinik. Bihar Euskararen Nazioarteko Eguna dela, Euskal Herriko hizkuntzaren suspertze eta normalizatzeko prozesu irregularra azkartu beharra nabarmen ageri den honetan, Kataluniako egoeraren berri zuzena jaso dugu.

Azken datuen arabera, Kataluniako biztanleen %95 inguruk ulertzen dute katalana, eta ia %80 hitz egiteko gai dira. Euskal Herriko zenbait lurraldetan bezala, hizkuntza ofiziala da, okzitaniara eta gaztelaniarekin batera. Valentziako, Balear uharteetako, Andorrako, Aragoiko La Franja de Ponent eremuko eta Sardiniako L'Alguer hiriko biztanleria kontuan hartuta, 11 milioitik gora lagunek ulertzen dute katalana, eta horietatik 10 milioi inguru hitz egiteko gai dira. Euskararen datuak askoz apalagoak dira, proportzioan ere bai. Euskararen aldean, beraz, datu onak dira katalanarenak. Edonola, haren egoera ez da gaztelaniarena bezain ona... Katalunian bertan. Han, ia-ia denek ulertu eta hitz egiten dute espainola.

Pep Ribas hizkuntza katalanaren aldeko militante betarona da. Gaur egun Coordinadora d'Associacions per la Llengua Catalana (CAL) erakundearen presidentea da. Frankismoko jazarpen eta debekuak gogorarazi dizkiogu, katalanaren jendartereko erabilerak eta ezagutzak nabarmen atzera egitea eragin zutenak. Historian lehen aldiz, Katalunian gaztelania ama hizkuntza zutenen kopuruak katalana zutenena gainditu zuen.

Euskararen Nazioarteko Eguna da bihar. Euskal Herriak mende luzeetan eutsi dio bere hizkuntzari, baina haren egoera ez da tamainak eta botereak bermatzen dutena. Egoera hobean dago katalana eta, azkenaldion bereziki, hari begiratzen dio Euskal Herriak. Baietz esan digute, baina oraindik gutxitua dela bere lurraldeetan bertan.

Errepresioa ez ezik, 60ko hamarkadako immigrazioa erabaitzeko handicapa izan zela dio Ribasek, parametroak erabat aldatu zituen eta.

MURGILTZE SISTEMA, GAKOA

Berehala jarri du egoera hura iraultzen hasteko gako nagusia. Azken hamarkadetako hizkuntza murgiltze sistemak gainbehera geldiarazi du. Argi du ikas-

kuntza prozesua emendatzen doala. Guraso gaztelaniadunen seme-alabek katalanez ikasten dute hezkuntza eredu horren ondorioz. Hala ere, katalana Katalunian gutxiengoan dagoen hizkuntza dela dio. Zazpi milioi inguruko populazioaz ari gara, erdia Bartzelonako metropoli-barrutian bilduta. Bertan, gaztelania da nagusi. Gainerako lurraldean, katalanak oso ondo

Plataforma per la Llengua erakundeak antolatutako jaialdia.
Plataforma per la Llengua



funtzionatzen du, bertan immigrazioak ez baitzuen eragin bera izan. Han landa eremuak dira nagusi, eta, Ribasek dioenez, haietan ez zen ghettorik eraiki, immigrazioa integratu egin zen eta katalanak lehentasuna izan du, eta du.

Hizkuntza-murgiltze sistema oso ona izan dela dio, baina «erdizka» baino ez omen du funtzionatu metropoli-inguruan, eta horretan zerikusia du bertan beti PSCK gobernatu izanak. Alderdi horrek, Ribasek dioenez, ez du katalanaren aurka egin, baina ezta aldeko politika aktiborik ere, salbuespenak salbuespen. «Hizkuntzari dagokionez beste jokaera bat izan balu, beste kuku batek joko zigukeen».

Berreskuratze prozesua oso motela dela dio. Helduen irakaskuntza eta doakotasuna ere aipatu ditu, baina uste du ez direla oso faktore garrantzitsuak. Batez ere immigrazio berriari begirakoak omen dira, baina helduentzako irakaskuntza gaztelaniaz izan da batez ere. «Hemen faktore nagusia, erabakigarria, Lehen Hezkuntzako murgiltze ereduak izan da, baina oraindik asko dago egiteko».

Euskal Herriko egoera aipatu diogu, besteak beste EAEko eta Nafarroako ereduaren sistemak, legeak xedatzen duena bermatzeko gauza ez direnak. Horren berri baduela dio, baina hango ere ez dela panazea. Familia asko gaztelaniadunak direnez, murgiltzeak lehen mailan baino ez du funtzionatu. Argi utzi nahi, du, edonola, ez duela balorazio negatiborik egiten.

HIZKUNTZA LEGEA, BETE GABE

Ribasek gogorarazten duenez, 1998 arte ez zuten Hizkuntza Politika Legerik izan, eta lege hori ezin izan dute aplikatu. Gogorarazi duenez, esate bate-

rako, eraikin guztiak katalanez errotulatu behar dira. Errotulua gaztelaniaz jar daiteke, baina katalanez ere jarri behar da, eta ez omen da hala egiten. Arlo horretan bilakaera nabarmena izan da, eta horretarako laguntzak ere izan dira. Ribasen ustez, Kataluniako herrien %80etan katalanez errotulatu dute; izan ere, gaztelania oso nagusi den zenbait hiritan ere denda gehienetan katalanezko errotuluak ikusten dira, «prestigioagatik, diru-laguntzengatik, dena delakoarengatik».

Hori bai, Estatu espainola be-ligerantea izan omen da zentzu guztietan Ribasen ustez. «Hizkuntza Politika Legea bere horretan aplikatu ahal izan balitz, oso bestelako egoera izango genuke, batez ere jendarteko erabilerrari dagokionez». Euskal Herrian arrotza ez den arazoa, hain zuzen. «%90 baino gehia-

gok ulertzen dute eta mintza daiteke katalanez, baina %60 eta %40 artekoa da erabilera, eskualdearen arabera».

Gutziz jasanezina begitanzten zaio Ribasi Estatu espainolaren eta Kataluniako zenbait erakunderen propaganda, gaztelania baztertzen dutela, eskoletan doktrinamendua dagoela eta horrelakoak etengabe zabaltzen dituen. «Espainian sinetsi egiten dute, bertsio hori besterik ez dute-eta. Ez da harritzekoa dituzten kazetak eta telebistak izanda... Den-dena, Kataluniako prozesua bera bezala, kriminalizatu egiten dute Estatuari men egiten dioten hedabideetatik abiatuta. Hemen bizikidetzaren ereduak izan da beti. Sei edo zazpi urtez milioi bat pertsona atera gara kalera urtean behin edo bitan, eta ez da lurrean paper bat bera ere ikusi. Noiz gertatu dira amo-

Valentziako, Balear uharteetako, Andorrako, Aragoiko eta Sardiniako hiztunak kontuan hartuta, 11 milioitik gora lagunek ulertzen dute katalana. 10 milioi inguru dira hitz egiteko gai

Azken hamarkadetako hizkuntza murgiltze sistemak gainbehera geldiarazi egin du. Guraso gaztelaniadunen seme-alabek katalanez ikasten dute hezkuntza eredu horri esker

rrua eta zalaparta? Ultrak kale-atera direnean».


CORRELENGUA

Katalanaren beste militante historiko batengana jo dugu, Blanca Serrarengana, hain zuzen. Gaztelania katedraduna da, egun erretreta hartutakoa. Orain dela urte asko Euskal Herrian izan zen, Korrika ikusten, Katalunian ere hizkuntzaren aldeko lasterketa antolatze-ko asmoz. 90eko hamarkadan abiatu zuten Correllengua, eta, 1996tik, hizkuntza katalanaren lurralde guztietara hedatuta dago. «Euskal Herriaren eta Ka-

taluniaren arteko sinbiosia da, aspalditik indarrean dagoena», dio. Gogoan du, halaber, Jose Luis Alvarez Enparanza *Txillar-degi* zenarekin eta Galiziako ordez-kari batekin Euskal Herriko hiriburua guztietan zehar egin zuen bidaia. Ibilbide hartan ba-koitzak bere herriko hizkuntza-ren berri eman zien besteei.

Serrak dioenez, ez dago katalana galduta dagoela esaterik, «ezta hurrik eman ere»; hala ere, ordezkatzeari buelta emateko prozesuak jarraitu behar du. «Hiztun berriak sortzen di-

Behean, Ovidi Montllor poeta, kantautore eta aktorearen esaldia, Herrialde Katalanetako Ikasle Sindikatuaren horma irudian. Eskuinean, Pep Ribas eta Blanca Serra. GAUR8





ra, baina ordezkatzeko prozesua ez da gelditu». Eta horri dagokionez, arazo handiena jende askoren ezaxola dela uste du, batez ere gazteena, hizkuntzarako konpromiso serio baten falta, alegia. Gaztelaniak eta katalanak elkarren antz handia dutenez, erraza da hizkuntza batetik bestera pasatzea, eta hurbiltasun hori, katalana ikasi eta hitz egiteko abantaila dena, desabantaila ere bihurtu daiteke. «Bi aldeak ditu», dio Serrak. Katalanaren andeatze arriskua ikusten du, «hitz egitean gaztelaniatik hurbilen den irtenbidea hautatzen baita maiz, jatorrizkoa alde batera utzita. Hori hizkuntzaren egitura mailan ere gertatzen da, izenordain ahulekin kasu, halako presio, eragin edo interferentzia bategatik. Fenomeno hori gaztelanian ez litzateke gertatuko, ez hain bizkor, behinik behin».

ERABILERA, ERRONKA

Blanca Serrak ere ez du dudarik egiten murgiltze ereduak oso

eragin positiboa izan duela, derrigorrezko hezkuntza bukatzen dutenek ondo baitakizkitez bi hizkuntzak. Eta, Jordi Ribasek bezala, erabilera falta dela arazoa uste du. «Gaztelaniak hemen lasai asko eguneko 24 orduetan iraun dezake, baina katalanarekin ez da gauza bera gertatzen. Ezinezkoa da 24 orduz jarraian katalan hutsean bizitzea. Interferentzia oso argia da». Estatu espainoleko indar politiko eta hedabideek helarazten duten mezuaren arabera, ordea, Katalunian gaztelania zokoratzen ari direla gogorazi diogu. «Pentsa, nik, adinagatik ez nuen katalanezko oposizio egiterik izan, halakorik ez zegoelako, horregatik izan naiz beti Espainiera katedraduna. Esan diezadatelari niri, neure lan bizitza osoan espainiera irakatsi baino ez baitut egin! Katalanak orain hiztun kopuru garrantzitsua du eta ez da erraza izango atzera eginaraztea, baina, beste alde batetik, Konstitu-

Plataforma per la Llengua
Llenguaren ekitaldia.
Eskuinean,
erakunde horretako
presidente Oscar
Escuder.
Plataforma per la Llengua



Murgiltze sistemak «erdizka» funtzionatu du Bartzelonako metropoli-inguruan. PSCK ez du katalanaren aurka egin, baina ezta aldeko politika aktiborik ere, salbuespenak salbuespen

Gaztelaniarekiko hurbiltasuna, katalana ikasi eta hitz egiteko abantaila handia dena, desabantaila ere bihurtu daiteke luzera. «Bi aldeak ditu», onartu du Blanca Serrak

zioan, esate baterako, ez gaude maila berean. Gaztelania jakitea derrigorrezkoa da, eta katalana minorizazio egoeran dago. Horrek injustizia eta menderakuntza egoeran jartzen du gure hizkuntza, eta horrela ezinezkoa da bi hizkuntzak parekatzea. Pauso garrantzitsuak eman ditugu, eskolari eta zenbait hedabideri esker, eta hori da gaur jomugan dagoena: eskola, murgiltze eredu eta hedabideak».

Hedabideei dagokienez, katalanezkoak boluntaristagoak direla dio, eta zailtasun edo traba gehiago dituztela. «Zuk telebista pizten duzu eta gaztelaniarako kate bat aterako zaizu».

Aspaldi luzetik borroka askotan zaildua, aurrerantzean borroka gogorragoa izango dela dio Serrak, eta 155. artikulua aipatu du. «Baina eutsi egingo diogu, e? Eurek uste dute 155. geratzeko heldu dela hona. Baina Estatu osoarentzat ere izango da. Espainia berrasmatu egingo dute!», dio irribarrez.

BIZITASUN HANDIKO HIZKUNTZA

Plataforma per la Llengua 24 urte pasa bete ditu. Katalanaren behin betiko normalizazioa lortzea du helburu, kanpainak eta ekintzak antolatuz. Haren oinarritzko lan eremuak bi dira: jendartekoa, erabilera sustatzen duena, besteak beste immigranteekin lan eginez eta aisialdirako tresnak katalanez eskainiz; bestetik, hizkuntza eskubideak, enpresa eta nazioartea biltzen dituena.

Oscar Escuder erakunde horretako presidentek haren ikuspegia eman digu. Dioenez, katalana hizkuntza ertaina da, «sinetsarazi nahi diguten ez bezala». 10 milioi hiztun ditu, «horrek duintasun gehiagoren jabe egiten ez badu ere, guztiek duintasun bera baitute». Hori

«Pentsa, nik ez nuen katalanezko oposiziorik egiterik izan, halakorik ez zegoelako, horregatik izan naiz Espainiera katedraduna. Esan diezadatela niri gaztelania zokoratzen dugula!»

«Estatuek esku hartu ezin duten esparruetan, katalanak bizitasun handia du»; esate baterako, Interneten edo familia transmisioan. 10 urtean milioi eta erdi lagunek ikasi zuten katalana

bai, hiztun kopuru horrek erraztasun handiagoak ematen omen ditu merkatu mailan.

Plataformak urtero aurkezten duen InformeCAT txostenak katalanaren egoera deskribatzen dituzten datuak ematen ditu, eta Oscar Escuderrek esaldi batean laburbildu du egoera hori: «Estatuek esku hartu ezin duten esparruetan, katalanak bizitasun handia du»; esate baterako, Interneten edo familia transmisioan. 2004 eta 2014 bitartean milioi eta erdi lagunek ikasi zuten katalana. Alde batek kanpotik heldutako jende askok ikasi zuen, eta bestetik, beren gurasoekin gaztelaniaz egiten zuten askok beren seme-alabekin katalanez egiten dute. Katalunian gehien entzuten diren bost irratietatik lauk dena katalanez ematen dute.

Estatuen menpe dauden esparruetan, berriz, hala nola justizia administrazioan, legegintzan... oso besterik da; hartara, justizia auzitegietan epaien %8 baino ez dituzte katalanez ematen. Orain dela zenbait urte epaien %25 katalanez ematera iritsi ziren, baina ondoren etengabe behera egin du portzenta-jeak. Espainiak Hizkuntzen Europako Gutuna betetzen ez duela erakusten duen adibide bat baino ez da. Duela hamabost urte sinatu zuen espainiar Estatuak gutun hori, epaile eta justizia funtzionario katalan hiztunak jartzera behartzen du horrek, baina ez du bete. «Ez gurekin ez zuekin, jakina!».

8oko hamarkadatik hona argi esan daiteke katalana sus-

pertu egin dela, eta murgiltze sistema, «hobeto funtziona lezakeen arren», oso ona izan dela dio Escuderrek, «eta espero dugu izaten jarraituko dela nola hizkuntzaren ikaskuntzaren ikuspuntutik hala jendarte kohesioarenetik».

POLEMIKA POLITIKOA

Izan ere, irakaskuntza sistema denentzat berdina izateak ikasketari eta jendarte kohesioari mesede egin die. Urte askoan, milioi bat ikasletik, bestelako irakaskuntza, gaztelaniaren presentzia handiagoa eskatzen zuten gurasoak ez ziren 25etik pasatzen; zenbait urtetan askoz gutxiago. Orain gehixeago dira, polemika politikoaren ondorioz, baina argi dago inork ez duela arazorik izan bere semeak eskolan katalanez ikasteagatik.

Gaztelania Katalunian baztertzen dela entzunda, barre egitekoa dela dio Escuderrek. «Hemen inork hizkuntza bat ez badaki, hizkuntza hori katalana da, hemen ez duzu gaztelaniaz ez dakien zazpi urtetik gorako inor topatuko». Europako Kontseiluko adituen 2007ko txosten batek dioenez, hizkuntza murgiltze sistemak bi hizkuntzen ezagutza sustatzen du, «eta ez dut uste Europako Kontseilua Generalitateak erosita zegoenik». Gainera, Estatu espainoleko Hezkuntza Ministerioaren beraren datuen arabera, selektibitate probetan Gaztelania irakasgaien laugarren notarik onena ikasle katalanek ateratzen dute.

XERREM, HIZKUNTZAREN BIDEZ BIZIKIDETZA ETA KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO

CAL erakundearen Xerrem integrazio proiektuak 10 urteko eskarmentua du. Jordi Esteban haren sortzaile eta arduraduna da.

Joan Sola hizkuntzalariaren hitzak erabiliz, katalanak hiru lazeria dituela dio: politikoa, linguistikoa eta soziala. Lehena, katalanaren erabilerak legedian gutxienez gaztelaniaren baldintza berdina izan beharko litzukeelako; bigarrena, katalan hiztun askok hainbat jatorrizko elementu galdu eta gaztelaniaren egituretara moldatzen dutelako beren hizketa, eta hirugarrena –Euskal Herrian ere ez da arrotza– Jordi Estebanek horrela azaldu duena: «Katalana ardura handiz irakasten da ikasgeletan, baina haurrek jolastokian gaztelaniaz egiten dute».


Errealitate horretatik abiatuta, pertsona bat bat berea ez den hizkuntza batera nola hurbiltzen den eta nola bere egiten duen ulertzeko ahalegina aztertu zuen, zenbait unibertsitate ikerketa baliatuta. Ez nola ikasten duen hainbat orduko eskoletara joanda, baizik eta nola ikasten duen hizkuntza horretako hiztunekin harremanetan. «Harreman esparru horretan, lortzen dudanean besteekin topo eginda naturaltasunez sentitzen dudana agertzea, ezagutzen dudana erraz deskribatzea,

gogoratzen dudana gutxi gorabehera zehaztasunez kontatzea, egiten dakidana edo nola jokatzeko dudana azaltzea, zerbaiten gainean iritzia ematea... baliatu dudana hizkuntza hori nire ere badela esan dezaket. Eta nik maite izango dut baliagarri izan dudana tresna gisa».

«Berriketari egin dezagun» esan nahi duen egitasmo horrek, hainbat katalan hiztun boluntarioekin eta katalanera hurbildu nahi duten lagunekin osatutako taldeak antolatzen ditu. Astez aste, gune sozialetan, eta ez ikasgeletan, egiten dituzte topaketak: ateneo batean, parrokia batean, gizarte etxe batean... Hierarkiarik gabe, talde horietan eguneroko bizitzako kontuez hitz egiteko elkar topatzen duten pertsonak daude. Gonbita egiten dute, ez derrigorrezko ezer.

Uneotan 120 talde dituzte, eta 200 boluntario. Urtero 1.000 lagunek hartzen dute parte. Estebanek horrelako 6.000 talde nahi ditu, eta milaka boluntario. Hiru profil daude: katalanez ezer ere ez dakitenak, ulertu bai baina inoiz hitz egin ez dutenak eta pixka bat hitz egiten dakitenak. Taldeak oso heterogeneoak dira.

Egitasmo horretan parte hartzen dutenek zenbait onura izango dituzte: «Ateak zabalik topatzen dituzte, topaketa hauek ez baitira hizkuntza bakarrik, hizkuntza bitartekoa baita, giza komunikazio eta ahalduntze guneak dira, autoestimua apala gainditzekoak, elkarrizketarakoak, beste kulturak eta ikusmoldeak ezagutu eta onartzeko guneak». Bestelako Katalunia bat azaleratzen da topaketotan, «Antena 3 edo Telecinco bakarrik ikusten duenak ezagutzen ez dituen erreferentziak». Eta aldi berean beste herrialde batzuetako erreferentziak jasotzen dituzte partaideek. «Gure herrian gizarte kohesioa emendatu nahi dugu, interkulturalitatea handitu, ghettoak saihestu, harremanak, bizikidetzak, parte hartzea, konpromisoa... sustatu. Abuztuaren 17ko Bartzelonako atentatu larriaren ondoren argi ikusi zen hemen immigranteekiko pentsaera kaleko segurtasuna bilatu besterik nahi ez dutenen ezberdina dela; integrazioa eta elkar ezagutza bilatzen dira, zailtasunak gorabehera», dio Estebanek.




Jordi Esteban. GAUR8



Amaia BALLESTEROS

IRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



Rennes II unibertsitateko soziolinguistika iker-tzailea da Philippe Blanchet. Eremu frankofonoetan dagoen hizkuntza aniztasunean eta frantsesaren aldaera ezberdinetan espezialista da. Aldi berean hizkuntza proventzala hedatzeko tresna didaktikoak sortu ditu, baita hainbat idazlan literario sortu ere. Duela bi urte argitaratu zuen “Combattre la glottophobie” liburuak arrakasta handia lortu du, eta, horren erakusle, astero bi edo hiru elkarrizketa egiten ditu terminoaren esanahia azaltzeko eta horren inguruan dagoen egoeraren berri emateko.

«Gltofobia» termino aski ezezaguna da. Zer esan nahi du zehazki?

Bada denbora asmatu nuela, baina orain anitz hedatzen ari da. Oro har errateko, diskriminazio linguistikoa da, baina terminoa ez zitzaidan egokia iruditzen, jendearekin hitz egitean ulertzen dutelako hizkuntzen gaineko diskriminazioaz ari garela soilik. Eta ez garelako konturatzen pertsona bera dela diskriminazioa pairatzen duena. Gainera, sarri erraten da hizkuntza aldatzea besterik ez dutela egin behar, horrela ez direla diskriminatuak izango. Baina hizkuntza nortasunaren ezaugarria da, eta norbaiti hizkuntza aldatzeko edo bestela mintzatzeko eskatzea beste norbait izatea eskatzea da. Nik nahi nuen erakutsi pertsonen egiten zaizkien diskriminazioak direla, ez soilik hizkuntzarenak. Horregatik, “gltofobia” hitzak antzekotasuna du “xenofobia” edo “homofobia” hitzekin, eta aski ongi funtzionatzen du.



Argazkiak: Bob EDME

«Gltofobia hizkuntza diskriminazioa da, xenofobia edo homofobia bezalako diskriminazioa»

PHILIPPE BLANCHET

SOZIOLINGUISTA

Diskriminazio linguistikoa definitzen duen

«gltofobia» terminoaren asmatzailea

Euskal Herrira gomitatua izan da

Euskararen Nazioarteko Eguna kari.

Idoia ERASO

Zerk bultzatu zintuen gaia jorratzera?

Soziolinguista naiz, beraz, gizartean hizkuntzek daukaten tokiari buruzko analisiak egitea interesatzen zait, baita gizarteak hizkuntzengan duen eragina eta mundu sozialari buruz hizkuntzek erakusten dutena. Gizartean hizkuntzek duten tokiari begiratuta laster konturatzen gara desparekotasun eta bazterketa fenomenoak daudela, hau da, diskriminazio fenomenoak.

Nire unibertsitateko ikerketa taldean deliberatu genuen programa bat egitea testigantzak bildu, behatu eta egiaztatzeko diskriminazio glotofoboak ote dauden, ondoren fenomenoak aztertu eta ulertzen saiatzeko. Nire lana oinarrian da jendearengana joatea testigantzak biltzera, hizkuntzari buruz mintzo diren diskurtsoak biltzea, baita prentsan eta politikan ere. Bilduma aski handia eginda, corpusa, konturatu ginen erregulariki diskriminazio linguistikoa badela. Orduan saiatu ginen zergatik gertatzen den ulertzen, eta bereziki zergatik diskriminazio horiek hain hutsalak, hedatuak eta errazki onartuak diren, beste diskriminazioak bezain onartezinak direnean.

Zeintzuk dira gltofobia kasu ohikoenak?

Bizitza sozialaren eremu guztietan atzematen dira, baina batzuetan gehiago atzematen dira: eremu gakoetako bat hezkuntza da. Frantzia ikertu dut bereziki, nahiz eta beste herrialdeetan ere egoera parekagarriak atzeman daitezkeen, baina maila txikiagoetan.

Hezkuntza sisteman, orokorrean, ohikoa da irakasleek eta hezkuntza taldeak haurrak diskriminatzea beraien hitz

egiteko eraren edo hitz egiten duten hizkuntzaren arabera. Umiliatu, mespretxatu, zigortu egiten dituzte haurrok, beraien hizkera edo hizkuntza erabiltzea aurpegiratzen diete... Pentsa, haurrak hori egiteko hezten dituzte, eta beraien bizitza osoan zehar jokaerok errepikatzen. Normala dela erraten diete, hizkuntzen artean hierarkia bat dagoela, goi mailako eta azpiko hizkuntzak daudela, ongi eta gaizki mintzatzen den jendea; beraz, sinestarazten diete normala dela jendeari azpiko hizkuntzak deiturikoak mintzatzea eragozte, hizkuntza batzuk inposatzea beste batzuen orde.

Beste eremu profesional bat non aipatutakoa anitz atzematzen den, hizkuntzarekin lotutako lanbideena da, hau da, kazetariak, aktoreak, harrera lanetan ari direnak... Profesionalok sarri ezin dute lana lortu beraien hitz egiteko era ez delako onargarria, hau da, hizkuntza "legitimo" bat mintzatzen dute baina azentuarekin. Eragina beste eremuetara ere heltzen da. Ospitalean, esaterako, jendeari erraten diote hobeki mintzatzeko, ez dela ulertzen zer esaten ari diren...

Zergatik gertatzen da hori?

Frantzian bada ideologia linguistikoa bat, pixkanaka eraiki dena Frantzia modernoa sortu zenetik Iraultzaren garaian. Politikoen nazio homogeenoa bat sortu nahi izan zuten, non estatua eta nazioa bera izan behar ziren. Iraultzaren garaian probintzietako jendearen gehiengoak ez zuen frantsesa mintzatzen, sarri ez zuten ulertu ere egiten. Politika linguistikoa oso agresiboa ezarri zen frantsesa inposatu eta beste hizkuntzak baztertzeko, Euskal Herrian, euskara.

«Jendeak glotofobia normaltzat jotzen du, baita biktimak direnean ere.

Pentsatzen dute:

‘Gure hizkuntza ez da benetako hizkuntza, hobe da gure seme-alabek frantsesa ikastea’.

Erresistentzia egiten ahalko lukete, baina gehien-gehienak konbentzitu egin dituzte»

«Haurrei glotofobia normala dela erraten diete, hizkuntzen artean hierarkia bat dagoela.

Sinestarazten diete normala dela jendeari azpiko hizkuntzak deiturikoak mintzatzea eragozte, hizkuntza batzuk inposatzea beste batzuen orde»

Politika hori ezartzea lortzeko, ideologia bat hedatu da, bereziki eskolaren bitartez, non ospea kendu zaien "herri hizkuntza" deitzen direnei, hau da, frantsesa ez diren beste hizkuntza guztiei, eta frantsesari balio handiago eman zaion. Horrela jendearen buruetan hizkuntzen arteko hierarkia bat ezarri dute. Testu historikoak irakurtzean, hori etengabe errepikatzen dela ikusten da; XIX. mendean eta XX. mendean lege testuak daude, eskuliburuak haurrentzat, diskurtso politikoak...

Egun ere atzeman daiteke. Hezkuntza ministroak duela egun batzuk ideia bera errepikatu du: Frantzian hizkuntza bakarra dago, gramatika bakarra, jende guztiak hizkuntza bera era berean mintzatu behar du... Ez dira soilik hizkuntza on eta txarrak, mintzatzeko eren artean ere bada on den bat, Parisko burgesiarena, estandarra, eta besteak txarrak dira. Jendeak hori normaltzat jotzen du, baita biktimak direnean ere. Pentsatzen dute: «Gure hizkuntza ez da benetako hizkuntza, hobe da gure seme-alabek frantsesa ikastea». Erresistentzia egiten ahalko lukete, baina gehienak konbentzitu egin dituzte.

Gizartea sentsibilizatzen ari dela iruditzen zaizu?

Sentsibilizazioa txiki bat hedatzen ari da, horretan nire liburuak ekarpen handia egin du. Ez dut nire gloria handitzeko esaten, baina erreakzioa oso handia izan da, hedabideak ikaragarri mintzatu dira liburuaren gainean, bai Frantzian, bai beste herrialde frankofonetan ere, Belgikan, Suitzan, Kanadan. Benetan eragina izan duena "glotofobia" hitza bera izan da, jende anitzek

erran dit kontzientzia hartu duela, fenomenoak ikusten duela, izendatzen dakielako. Testigantza anitz jasotzen ditut, mezu elektronikoak, gutunak, prentsaren bitartez helitzen zaizkidanak... Horrek erran nahi du jende anitzek hori bizi izan duela eskualde hizkuntza bat mintzatzeko delako, hizkuntza immigratu bat, edo frantses popularra. Batzuetan testigantza hungariarriak dira, sufrimendua pairatu duen jendearenak. Baina oso zaila da egoera iraultzea, jende anitzek egoera hori ez duelako ezagutu, eta bi mendez eraiki den ideologia linguistikoa ezin delako hain errazki alderantzikatu.

Zein da egoera uneotan Estatu frantsesean?

Frantzia ezagutzen diren kasuetan okerrenetakoa da: beste herrialde askotan baino azkarragoak dira hizkuntza bateratuaren ideologia, beste hizkuntzekiko mespretxua eta hizkuntza eskubideen ukapena. Araua diktadura linguistikoa da, eta hizkuntza eskubideak gauzatzea borroka bat da, hortik dator nire liburuaren izenburua bera ere: "Combatte la glotophobie" [Glotofobiari aurre egin].

Beste herrialde askotan, egoera hobea da. Espainian, adibidez, anitz hobea onartzen dira Estatuan hitz egiten diren beste hizkuntzak, konstituzioan bertan jasota daude, eta gaztelaren aldaerei dagokionez, askoz hobeki onartzen da jendeak gaztelaren aldaera latinoamerikarrak mintzatzea, ez da irrik egiten. Aldiz, Frantzian jendeari okerra, irringarria edo soportaezina iruditzen zaio Quebec, Algeria edo Senegalgo frantsesa. Pentsa, azpigituluak ere ezartzen diz-

kiete telebistan agertzen direnean! Hori ez da mundu gaztelaradun edo ingelesdun gertatzen, nahiz eta badiren diskriminazioak ere.

Eskualde hizkuntza deituri-koentzat egoera oso zaila da Estatu frantsesean.

Bai, ni ere eskualde hizkuntza bateko hiztuna naiz, provenzera. Gainera, Britainian bizi naiz eta ongi ezagutzen dut bretoieraren egoera ere. Badira egoera batzuk hain okerrak ez direnak, Euskal Herriko kasu, herritarren erresistentzia handiagoa izan baita. Baina badira beste egoera batzuk non jendeak guztiz onartu duen bere hizkuntza uztea, non herritarrek beraien hizkuntzaz lotsatzen diren, non frantsesetik mintzatzeko ere frantsesetik hitz egiteko beraien moduz lotsatzen diren... Berezi inguru popularretan, landa eremuetan, Frantzia erdi eta iparrean gertatzen da; jendea hain izan da estigmatizatu, guztiz barneratu duela. Badaude egoera soziolinguistikoa aski desesperagarriak; seguruenik bukaeran gaude.

Zorionez ez da toki guztietan bera gertatzen, gune periferikoetan, Britainian, Euskal Herrian, Rosello edo Ipar Katalunian, Korsikan, Okzitanian, Alsazian erresistentzia bada. Baina egoera larria da: Unesco egindako egoera larriak dauden Europako hizkuntzen sailkapenean, Frantziako hizkuntza gehienak larriki mehatxatuak dira. Euskal Herrian pixka bat hobetzen ari da egoera, baina, hala ere, egungo euskaldun kopurua duela 50 urtekoa baino anitz txikiagoa da. Britainian, Proventzan... etorkizuna ez da segurtatua. Egoera ezberdina da itsasoz bestaldeko Frantzian, non, kre-

«Frantzian jendeari okerra, irringarria edo soportaezina iruditzen zaio Quebec, Algeria edo Senegalgo frantsesa. Pentsa, azpitoluak ere ezartzen dizkiete telebistan agertzen direnean!»



ola, Kaledonia Berriko kanak hizkuntza edo hizkuntza polinesiarrak biziagoak diren.

Euskal Herrian egoera larria bada ere, hobea dela diozu.

Seinale oso argiak daude, erraterako, Frantzian eskualde hizkuntzatan eskolatutako haurren portzentaje handiena duen lekua da. Haurren %50 inguru murgiltze eredu edo eredu elebidunean eskolatuak dira, hori anitz da. Britainian edo Korsikan, proportzioa arras txikiagoa da; Britainian, erraterako, %10 baino gutxiago. Azalpena historikoa izan daiteke, baita Hego Euskal Herriko laguntza moral eta logistikoa ere. Hala ere, Ipar Euskal Herrian ez da euskararen jarraikortasuna segurtatua.

Euskararen Nazioarteko Egunaren karietara gonbidatu zaituzte. Zertaz ariko zara emango duzu hitzaldian?

Idea nagusia informatzea da, ardurak dauzkan jendeari diskriminazio glotofobia zer den azaltzea. Eskubide linguistikoa zeintzuk diren ere azaltzen dut, testu juridikoekin; izan ere, izan badira Frantzian ber-

tan ere, nahiz eta legedia kontraesankorra den. Argudioak ematen dizkiet beraien eskubideak defendatzeko. Azalpen zehatza ematen dut egoera honetan zergatik gauden ulertzeko, ulertzen badugu, deseraiki dezakegu, badakigu zeren kontra borrokatu. Mintzaldietan adibideak ematen ditut, erakusteko jendea zer esatera auzartzen den, eta onartu behar ez dugula errateko. Egun ezin da diskurtso arrazista edo xe-

nofoborik izan, legeak debekatzeko duelako, eta jendeari erran behar zaio ez duela eskubiderik diskurtso glotofobo bat izateko. Egunerokotasunean ez dugu glotofobia onartu behar, ezta gauzatu behar ere.

Jendeak nola erreakzionatzen du zure ideien aurrean?

Bi erreakzio mota daude. Gaian interesa dutenek edo eraren batean beren buruei galderak egiten dizkietenek,

normalean, ongi erreakzionatzen dute. Badira kontzientzia hartze handien testigantzak ere; aurrekoan Baionan emakume batek erran zidan ez zuela lorik eginen, esandakoak bere lana egiteko era guztiz aldatzen zuelako. Beste batzuek azaldutakoarekin bat egiten dute, maila ezberdinetan. Aldiz, badira konbentzitu ezin direnak ere, justuki hizkuntza bakarraren erlijioaren sinesmen horretan sartuak direla-

ko; ez dituzte arrazoi arrazionalak entzun nahi, erreakzio pasionalak dituzte. Nazioaren bateratasunaz mintzatzen dira, hori egiten badugu katalanak bezala bukatuko dugula, Frantziak eztanda eginen duela, jendeak ez duela elkar ulertuko... Horrelako argudioak erabiltzen dituzte, guztiz gezurrezkoak. Baina maite dut jendeak hori erratea, horrela erantzun eta tronpatzen direla azaltzen saiatzeko. Argudioak desegiten ditut, baina ezin da jende guztia konbentzitu... Hala ere haziak landatzen ditut.

Hizkuntza bakarraren erlijioa erran duzu...

Bai, badira ikerketa soziolinguistiko anitz Frantzian hizkuntza erlijio bilakatzen dela erraten dutenak: sakratua balitz bezala gurtzen da, ukitu ezina da, zalantzan eman ezin daiteke, jaingo bat bezalakoa da. Erlijioan, sinesmenean, lan zail eta handi bat bada gauzak arrazionalki begiratzeko.

Zer defenditzen duzu zuk?

Hezkuntza aldatu behar da, glotofobia eraikitzen duelako. Aniztasun linguistikoan oinarritutako hezkuntza behar da; badira gizarte anitz non nahi duzun bezala mintzatzen zaren eta jendeak hori normaltzat hartzen duen. Gizarte horietan bezala egin dezakegu.

Liburuaren arrakastaren ondoren, ze proiektu duzu?

Beste liburu bat egiteko asmoa dut. Lehen lanak unibertsitate estiloa du pixka bat, ez da denentzat irakurterraza. Beste bertsio bat eginen dut publiko zabalarari zuzendua. Lankide batekin testigantzak bilduko dituen lan bat egiteko asmoa ere badut: hitza eman nahi diegu glotofobia sufritu dutenei.



Arantxa Urbe
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Amets orduak euskaraz

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

3 BEGIRADA:

Behin, euskara, hezkuntza, aisia eta familia hari finez josten dituen Iñaki Eizmendiri entzun nion D ereduan ari den ikasle batek urte osoko esna orduen %15 egiten dituela euskararekin harremanean. Kontuan izanik, gaur-gaurkoz, D eredu delaren dugun

Hezkuntza Sistemak eskaintzen duen eredurik euskaldunena, esan dezakegu euskararekiko egoera hobereanean ditugun ikasleek esna dauden 100 orduko 15 ordutan soilik izango dutela harremana euskararekin. Gainerakoak, egoera okerragoan leudeke: zenbatekoa izango ote da euskararen presentzia haien esna orduetan?

Askotan esan dugu euskararen gaian eskolak bakarrik ezin duela. Asko da egin duena, izan euskararen ezagutzan edota gaitasun linguistikoan, izan erabilerari sustatzean; baina, antza, eskolaren ekina gaina jotzen ari da. Hortaz, asko egin dezake, bai, baina, berak bakarrik ezin du.

Heziguneko ateetatik barrura, eta Iñaki Eizmendik aipatutako ideiarri jarraiki, hezitzaileok onartu egin behar ditugu eskolak euskararen gaian dituen mugak. Are gehiago, euskararen erabilerari dagokionez. Izan ere, gure eskuetatik kanpo geratzen zaizkigu haur eta gazteen bizitza osatzen duten hainbeste eta hainbeste eremu –esna ordu–, neska-mutilentzat erakargarrienak, askotan. Hortik dator, Donostiako eskola bateko hezitzaileek euskara eskola hizkuntza bihurtzeko ikusi duten arriskua, garai batean latina bihurtu zen bezala.

Euskararen Egunek balio bezate, sikiera, animoak hartu eta etsipenean ez erortzeko. Mugak handiak izan arren, haiek onartu eta aurrera egin behar dugu, gure erantzukizuna zer-no-

lako eta zenbatekoa den ongi aztertuz eta definituz. Beraz, euskararen gainean taxutzen ditugun plangintzak findu beharko ditugu, gure mugak ahalbidetzen dituzten neurrian eta zabaltzen zaizkigun aukerak baliatuz. Hezitzaileon eta eskola komunitateko partaideon erantzukizuna da, bestalde, gure inguruan ari diren eragileekin elkarlanerako zubiak eraikitzea eta indartzea. Guztion ahalegina, denen indarren eta aukeren batura, izango baita emaitzarik onena eta eraginkorrena lortuko duena. Oraingoan, kasurik onenean, gure ikasleen 100 esna orduetatik 15etan kabitzen denean eragin dezakegu. Plangintza eta elkarlana gure erantzukizuna dira, ez dezagun ahaztu.

Euskararen presentzia hain txikia izanik, nola bermatu, ordea, euskaraz aritu nahi duenaren eskubidea?

Hezkuntza arloan erantzuna bilatzen hasita, aspalditik dakigu etxetik euskara gutxi dakarrenari euskara gehiago eskaini behar zaiola. Alde horretatik begiratuta, zaharkituta geratu dira A, B eta D hizkuntza ereduak.

Elkarrekin eraiki behar dugu hiztun guztioi, bakoitza bere hizkuntza eskubideekin, kontuan hartuko gaituen etorkizuna. Eta zerk bermatu ahal izango luke benetan errealitate hori gauzatzea euskal hiztunak eta erdal hiztunak baztertuak sentitu gabe? Zalantzarik gabe, eta hezkuntzatik ekarri dezakegunetik, eskolak euskara ez dutenei Murgiltze Eredua eta euskara dutenei Mantentze Eredua eskaintzea. Hori litzateke, gure amets orduetan euskararen prozesuan, deitu berreskurapen, biziberritze, indarberritze edo dena delako, begitandu dugun hurrengo geltokia. •



Euskarak 365 egun eta esna ordu gehiago behar ditu. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Laura Mintegi**

«Me too»

Umetan ikasi genuen neska izatea ez zela negozio ona, mutila izateak bazituelako abantailak neskatoa izanda eskuraezinak zirenak. Egitate hori modu sotilean baina etengabe transmititzen zitzaigun, eta sotil eta etengabe gureganatu genuen belaunaldiko neskatook. Mutikoen balentriak txalotuagoak ziren, beren trebezia miretsiagoa eta beren kontaketak entzunagoak. Burbuila txiki baten modukoa zen mundu hartan, mutikoa epizentroan zegoen eta neskatoa hor nonbait, alderen batean.

Nerabegarora heltzen ari ginela, gure burua “emakume” deitzeko oraindik ere ausardiarik ez geneukan, konturatu ginen neska izatea desabantaila izateaz gain, arriskutsua ere izan zitekeela. Gogoratzen dudana lehenengo erasoak Algortako Portu Zaharreko jaietan izan zen. Hamabost urte genituen, gaua zen eta portutik Usategirako bidexkatik igotzen ari ginen lagun bat eta biok. Gure adineko mutil kuadrilla zabalagertu zen tupustean eta dozenaka esku igurtzika sentitu genituen gona azpitik eta gorputz osotik, iraintzen gintuzten bitartean. Ostikoka lortu nuen askatu eta korrika ateratzea, baina laguna kikilduta eta negar batean ikusi nuenean, haren bila itzuli nintzen infernura. Minutu gutxi pasatuko nituen berriz ere erasoan, laguna askatzea lortu arte, baina orduak bailiran bizi izan nituen. 47 urte geroago oraindik gogoan dut.

Uda hartan *au pair* eman nuen hilabetea Londresen. Etxeko gizonak edozein aitzakiarekin aterarazten zuen emaztea etxetik nirekin geratzeko eta lizunki laztantzeko. Buruaz beste egitea pasa zitzaidan burutik, hain zen jasanezina egun bat gehiago ematea haren teiltupean.

Hamazortzi urte oraindik bete gabe neuzkala, auto-eskolako irakaslea baliatzen zen bolanteari heldu behar niola, ukitzeko eta musukatzeke, ni saiatzen nintzen bitartean errepidetik ez ateratzen.

Orduetik hona beste eraso batzuk bizi izan ditut, baten bat larria. Zenbatzen jarri naiz. Zortzi. Zortzi eraso sexual, gehienak ezagutzen nituen gizonek eginda: gaztetako mutil-lagun ohia, harremana mozteagatik; lankide obsesiboa, gau “dibertigarria” pasatzen ez uzteagatik. Gizon haiek ez ziren estrainioak, ezagutzen nituen. Eraso batzuk galduta nituen memoriaren izkin batean, erdi ahazturik. Baten bat ez dut ahaztu bizitzaren egun bakar batean ere.

Ez dut emakumerik ezagutzen, ezein adinetako emakumea izanik ere, bizitzaren uneren batean ala bestean beldurrik sentitu ez duenik emakume izate hutsagatik. Emakume jaiotzeagatik. Beldurra bortxatua izateari, beldurra kolpatua izateari, beldurra erabilia eta uxatua izateari.

Emakumea truke-txanpona izan da mundua mundu denetik. Ondasunak erosteko eta saltzeko erabili izan da.

Ez dut emakumerik ezagutzen, ezein adinetako emakumea izanik ere, bizitzaren uneren batean ala bestean beldurrik sentitu ez duenik emakume izate hutsagatik. Beldurra bortxatua, kolpatua, erabilia eta uxatua izateari

Emakumea gerra-arma izan da mundua mundu denetik. Etsaia umiliatzeko etsaiaren emakumeak umiliatu dira.

Emakumea botere-tresna izan da mundua mundu denetik. Zenbat eta botere gehiago adierazi nahi, are eta emakume-objektu gehiagoz inguratzen du bere burua gizon handinahiak.

Bidea ez da erraza izango, baina bada garaia emakumea emakume izateko.

Haatik. Emakumea baino ez. Andre eta jabe. Balioaren neurria bere buruak emango baitio, ez beste ezerk, ez beste inork. •

DONOSTIA, 1702: DIBORTZIO BAT ETA HAMAIKA EMOZIO HISTORIA BIHURTUTA

Oihane Larretxea de la Granja


Manuela de Burgoak eskandalua etxetik kalera atera zuen 1702. urtean, Martin de Elgorriaga abandonatu eta Donostiatik hanka egitean. Hortik abiatuta, historia emozioen bidez aztertu eta kontatu du Iker Echeberria Ayllon ikerlariak «La plata embustera» liburuan.

Manuela de Burgoa eta Martin de Elgorriagaren arteko ezkon bizitzak bi hilabete baino ez zituen iraun. Aste batzuk baino ez. Zoriontasunik ez zuten konpartitu, pasiorik ezta ere. Elkarbizitza hura sufrikario iturri izan zen, hortaz dudarik ez dago garaiko dokumentuak eta elkarri idatzi zizkioten eskutitzei erreparatuz gero. Elkarren arteko dibortzio auzia hainbat eta hainbat urtez luzatu zen, noiz eta gizon eta emakume baten arteko ezkontza bat etetea pentsaezina zen garaian: 1702. urteaz ari gara. Garai hartako Donostia bestelakoa zen, jakina, baina hainbat rolek eta jokaerek arrastoa utzi zuten eta zenbait keinu ez daude egun entzun eta egiten direnetatik hain aldentuta...

Iker Echeberria Ayllon (Donostia, 1987) Historian lizentziatua da, eta, behin masterra amaituta, doktoretzaren bidea hartua du. Zehazki, emakumeen historiari buruz Aro Modernoan. Horretan ari zela deskubritu zuen Euskadiko Artxibo Historikoan duela hiru mende gertatutakoa. Dokumentazio mordera arakatu, aztertu, txukundu, eta bi urteko lanaren ostean argitaratu du Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik "La plata embustera. Emociones y divorcio en la Gipúzcoa del siglo XVIII" liburua. Bibliografia harrigarria du: 250 liburu eta erreferentzia inguru agertzen dira, dena xehetasun handiz emana. Egileak GAUR8rekin egindako elkarrizketan aitortu duenez, «milaka eta milaka» orri irakurri behar izan ditu, tartean duela 300 urte idatzitako testuak, altxorak finean. 1813an hirian jazo zen sutea tarteko, baina, Donostiako artxiboa «oso pobrea da», gauza asko betiko galdu ziren. Hori horrela, li-

Iker Echeberria Ayllon
ikerlari donostiarra,
«La plata embustera»
liburuarekin.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS




burua egiteko ezinbestekoak izan diren dokumentuak ikertu ahal izateko, Irulegi-Larreta familia artxibo pribatuan ere murgildu da. Bertako ondarearen kopia bat gordeta dago Euskadiko Artxibo Historikoan.

Martin de Elgorriagak Usurbil zuen jaioterria. XVII. mendearen bigarren zatian, Ameriketara joan zen, beste asko bezala, etorkizun hobe baten bila, dirua egin eta etxera itzultzeko. «Asko joan ziren, baina gutxik lortu zuten arrakasta», dio Echeberriak. Elgorriagak lortu zuen, zilarrarekin egin zituen negozioak tarteko, batzuk besteak baino ilunagoak. Sei urte ondoren helburua beteta bueltatu zen jaioterrira, eta Zubietan Berridi baserria erosi zuen. Prestigioa eta ondarea pilatuta, klase altuko pertsona zen. Monarkiarekin harremanak zituen eta Gipuzkoako ahaldu nagusia izatera ere heldu zen. Bistakoa da: Martin de Elgorriaga kapitaina bazen nor.

Beste aldean Manuela de Burgoa, Donostiako familia onenetako baten parte. Bere aita, Sebastian de Burgoa, birritan alkate izandakoa (1663an eta 1692an). Bi ahizpa zituen, eta bera zen ezkongabe zegoen bakarra.

Martin eta Manuelaren arteko ezkontza aste gutxiren buruan adostu eta prestatu zen. Eguna heldu bitartean, maitasun eskutitz bakan batzuk eta Elgorriagak Burgoari egindako opariak: bitxiak, arropa garestia eta beste gutzia batzuk. Zoriontasunik ez zen, baina, heldu etxe hartara: bi hilabeteren buruan, Manuela de Burgoak, arau guztien aurka, emakume batengandik garai hartan espero zen guztiaren kontra, etxea eta senarra abandonatu eta bakardadearen bidea hartu zuen. Ez zion borroka egiteari utzi, ez zen inoiz errenditu. Martin de Elgorriagak, berriz, hamaika saiakera egin zituen epaitegietan eta beste instantzia batzuetan emaztea zuena etxera itzul zedin; ohorea berreskuratu behar zuen.

Jenioa, umore txarra, keinu itsusiak, elkarbizitza jasangaitza... Martin gizon ilun eta bortitza zela argudiatzen zuen Manuelak. Ezin zuela hori gehiago jasan. Zergatik zen horrelakoa Martin?



Lerroon gainean, 1724ko Donostiako plano. Bertan ikusten dira hiriko harresiak eta Hernani eta Pasaiaarako bideak. Hurrengo orrian, 1728ko plano. Urgull, Santa Klara uhartea eta kaia ikusten dira. OLAVIDE ALBARELLOS VIGÓN-SAN TELMO MUSEOA

Manuela de Burgoak, arau guztien aurka, garaiko emakume batengandik espero zen guztiaren kontra, etxea eta senar aberatsa abandonatu zituen. Bakardadean, miseriaren bidea besterik ez zitzaion geratu egileak nabarmendu duenez

Bi «maitaleen» banaketa aitzakia baino ez da garai historikoa azaldu eta ulertzeko, orduan sentimenduak nola kudeatzen ziren aurkezteko. Emozioen historia biltzea ez da batere ohikoa; aitzitik, Euskal Herrian oso berria da

Dena alde zuen gizona zen, baina mamiak zituen: beldurrak eta krisiak. Zerbaitek kezkatzen zuen. Echeberriak bukaeran ezagutarazten dio irakurleari misterioa, eta guk hemen ez dugu ezer kontatuko, baina lasaitu moduko bat har daiteke arrazoi bat badagoela jakitean. Puzzlearen azken pieza topatuko duela sentituko du orduan...

IZAKI EMOZIONALAK

Bi «maitaleen» banaketa aitzakia baino ez da izan Echeberriarentzat emozioen eta sentimenduen historia ikeritzeko. «Kasu hau abiapuntu gisa erabili nahi izan dut hortik aurrera tes-

tuinguru historikoa azaltzeko. Gizonen eta emakumeen arteko harremanak oso garrantzitsuak dira liburuan, sentimenduen historian sartzen naiz, baita testuinguru politikoan ere... Garai hartako Donostia eta bere jendar-tea nolakoa zen ere ikus daiteke», kontatu du.

Liburua amaituta, ondorio nagusia atera du Echeberriak. «Izaki emozionalak gara. Gure bizitzan hartzen ditugun hainbeste erabaki normalean bihotzak bultzatuta hartzen ditugu; sentimenduak hor daude». 1702ko Donostian ere hala zen, Manuelak behintzat hala jokatu zuen. Hain zuzen, sen-

timenduak historian sakontzeko aztergai izateak joera bat puskatzen du. Echeberriak azaldu duenez, «historia aztertzean beti oso estrukturalak izan gara, oso arrazionalak, eta honek apurtu egiten du hori sentimenduei lekua aitortzean». Ikerlari donostiarrak erantsi duenez, sentimenduen historia oso-oso berria da Euskal Herrian, non ez den horrelako lanik egin. Ingalaterran, Estatu frantsesean, Estatu espainiarrean edota Italian, ordea, bai.

“La plata embustera” lanak erakusten duenez, Manuela eta Martinen arteko istorioan sentimenduek paper garrantzitsua izan zuten, are gehiago, beren bizitzen norabidea aldatu zuten. «Gakoa» hor dagoela iritzi du Echeberriak. «Beren erabakiak erabat emozionalak izan ziren». Sentimenduek paper garrantzitsua duten neurri berean izan zuten pisua garaiko jendarteak. Hiritarren arteko txutxu-mutxuek, kritikiek, iritziek... «Komunitate txikia zen Donostia, eta bestearen begiradak pisu handia zuen, zer esanik ez emakumeen kasuan: zer jarrera zuten, beraien-gandik zer espero zen eta zer ez... Hala ere, esango nuke beren garaiko seme-alabak zirela. Egun ere gertatzen da. Komunitate itxiek normalean den-dena salatzen dute eta zurrumurruak oso garrantzitsuak dira jendea bere lekuan jartzeko. Jendea eskema horietatik ez dadin atera. Ezarritako eskemetatik ateraz gero, seinalatu egingo zaituzte; zurrumurruek hori bideratzeko balio dute. Kasu honetan, ordea, entzungor egin eta Manuelak dena utzi zuen».

Hanka egin, senarra eta etxea atzean utzita. Ez zen halakorik espero. Gizarte erabat patriarkala zela gogoratu du ikertzaileak. Hori bai, aintzat hartu behar da ere dibortzio auzia Iruñean zegoen epaimahai berezira eramateko dirua ere behar zela. Gainontzeko etxeetan beste modu batean konpon-tzen ziren halako arazoak, ohikoa zelako ezkongaien artean gorabeherak egotea, baina beti etxe barruan; epaitegira jotzeak auzia publiko egitea suposatzen zuen, alegia, trapu zikinak kaleratzea, «eta hori eskandalu izugarria zen», dio Echeberriak.

XVIII. mendean zehar familia eredia eta diskurtsoak «pixka bat» aldatu ziren, baita maitasunaren eraikuntza bera ere. Halako kasuek bultzada moduko bat ekarri zuten, «pitzadurak» sortu zituzten, txikiak izan baziren ere. «Dibortzioaren auziarekin hori gertatzen da. Garaiko gizarteak ez du horrelakorik espero, ez dago prestatua horrelako kasuak kudeatzeko, auzioi gizarte gisa aurre egiteko. Emakumeen historia-erentzat oso une aberatsa da».

«Bost axola gizartea eta guztia... eta hortik aurrera hor konpon». Halako zerbait pasa zen akaso Manuelaren burutik. Bera bezalako emakumeak gizarteak baztertu egiten zituen. Echeberriak hala ondorioztatu du beste ikerketa batzuk egiteko eskuartean izan dituen hamaika dokumentuak aztertuta. «Patroia errepikatu egiten da».

EpaiKETETARAKO Manuela de Burgoak bildu zituen babesak denborarekin ba-

nan-banan erortzen joan ziren, epaimahaiak bere eskaerak ez zituen aintzat hartu eta abokatuak borroka horretan ez jarraitzeko aholkatu zion lehen zigorra jaso ondoren. «Berak, ordea, miseriaren bidea hartu zuen, baina bere bidea. Eta kontuan hartu behar da hori», uste du Echeberriak.

Garaiko gizonaren patroiarekin bat egiten du, bestalde, Martin de Elgorriagak. Ahultasunak ere bazituen. «Historia psikologikoa da», egilearen hitzetan. Pertsonan sartzea lortu duela dio, pozik, «oso zaila» delako hori lortzea; horretarako oso iturri bereziak behar dira, eta ez da batere erraza, dioenez. «Kontraesanak eta garaiko gizartearen desorekak ere agerian gelditzen dira; bere pertsona ikusita ohartzen zara. Hau ez da on eta gaiztoen istorio bat; ez gaude ez epaitzeko ez kritikatzeko».

Ohea konpartitu zuten, eta, hala ere, ez ziren gai izan elkarri bihotza ireki-

tzeko, beren mamuak eta beldurrak elkarri biluzteko. «Martinek ez zuen gertatzen zitzaiena konpartitu, bere sekretua zen. Garaiko balioak ere kontuan izan behar dira Martinen jorkabidea ulertzeko: ohorea, zer esango duten... Nik ere lasaitua hartu nuen dokumentuak irakurtzen ari nintzela jakin nuenean zer zuen». Bere ustez, porrot egitera kondenatuta zegoen ezkontza. «Gizonak bazekien nor zen Manuelaren aita eta bere erabaki batek zein eragin izan zuen Martinen beraren bizitzan; badirudi mendeku gisa ezkondu zela», dio.

Lerrootan ez dugu jakitera emango bananduta egon ziren urteetan bakoitza zer egin zuen, zoriontsu izateko aukerarik izan ote zuten, patuaren aurka borrokatu ote ziren. Bai, ordea, 1730an zendu zela Manuela de Burgoa, bere senarraren gaizkiaren jatorria ezagutu gabe...





Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

SAN SIMON ETA SAN JUDA, ALERTA GORRIA HELDU DA

«Katalunian egun on eta Belgikan gabon». Hala dio bertsio modernoak -bertso modernoak, zehatzago-, normaltasun arraro baten adierazle. Betikoak, ordea, uda partean bero eta negu partean hotz egiten duela dio; betiko bertsioak, edo gogoan dugunak behinik behin. Elurra dakar, eta harekin batera alerta egoera.

Haizearekin, euriarekin edo beroarekin bezala. Aldaketa kontserbadoreen alerta zela uste nuen nik, baina hedabideak demokratizatzen tematuta dabiltzala dirudi eta, hartara, zirimiria etxetik ez irteteko motibo. «Eguraldi ederra», entzun izan dugu azaroan bertan, mendian literalki hautsak harrotzen ibili garen goiz berean. Hemen dugu, bada, «eguraldi kaskarra», bere alerta eta guzti. Elurra, lehen albiste bihurtua, abendu hasieran. San Simon eta San Juda... sekula halakorik. Zein bizkor egiten garen kontserbadore, Arantzazuko paraje ederrera txangoa egiteko gogoak kentzerainoko kontserbadore. Bota dezala gogotik! Xabier Izaga Gonzalez

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua



«Paeta zarrak»

Mirari Martiarena

Oiartzuni buruz gutxi dakidala pentsatzen dut askotan. Buruan oraindik 8.000 biztanle dituela dut sartuta, horixe ikasi bainuen zortzi urterekin. Baina ez, kontuak aldatu dira eta 10.000 biztanleak aspaldi pasa genituen. Umetan ikasi genuen “Oiartzun! Gogor erantzun!” leloa eta baita “Oiartzun, paeta zarrak erantzun!” ere.

Oiartzuni eta oiartzuerari buruzko tribialak izen horixe du, “Paeta zarrak erantzun”. Aste honetan iritsi da nire eskuetara eta esan didate ez dela ma-

hai jolasa, jokia dela lehia dagoelako tarteko. Lehia behintzat sortu du gure etxeko sukaldean. Oiartzuni buruzko 1.500 galdera bildu dituzte Oiartzuarrren Baitan egitasmoko kideek herriko hainbat adituren laguntzarekin. 1.500 galdera sei gaitan banaturik: hizkuntza; kultura; historia; baserria, natura eta ekonomia; geografia eta toponimia; eta, gizartea eta kirola.

1.500 galdera horietatik ez dakit zenbat asmatzeko gai naizen. Baina, jokatzen hasi aurretik galdera batzuk irakurri eta gehiago ziren huts egiten

nituenak asmatzen nituenak baino. Beraz, nire kontra oraingoz asko duzue irabazteko. Gure aita pedigriko oiartzuarra ote den egiaztatzen ere aritu gara. Ez dakigu mahai jokia osatzeko lantaldean egon den hala ez, baina galdera guztiak asmatu ditu. Ez digu alferrik esan hainbeste eskola eta hainbeste kontu eta gero ez dakigula deus etxeko gauzei buruz. Bai, arrazoi du gure aitak, gutxi dakigu Oiartzungo gauzei buruz.

Eta zuek? Zenbat dakizue zuen herriari buruz? •

«Splash» eskoletan

Koldo Sagasti

Prentsaren bitartez jakin dut Gasteizko itunpeko ikastetxe ezagun batek instalazio berriak inauguratuko dituela laster. Besteak beste; “splash” areto bat eraikiko omen dute, psikomotrizitatea uretan lantzeko; “snoezelen” gun bat, zentzumenak estimulatzen; hareatza bat; eta arte-esparrua. Egitasmoari ginga jartzeko, gainera, Gernikako arbolaren kimu bat landatuko dute, antza, itzal handiko ikastetxe katoliko horren eremuetan. Proiektuaren aurrekontuko bi milioiak


Hezkuntza Delegaritzak hartuko ditu bere gain, albistearen arabera.

Ez dut kritikatu lerroetan erakunde publikoen dirua eragile pribatuen eskuetara bideratzearen egokitasuna, ez dezatela pentsa bekaizkeriak itsututa idazten dudarik. Ez dut kolokan jarriko euren seme-alabentzat Administrazioak ahalbidetzen dizkien pribilegioak aprobetxatu nahi dituzten gurasoen jokaera. Ez dut salatuko; hezkuntza arloko sindikatuek salatu duten bezala; itunpeko hezkuntzak populazioaren zati bat baz-

tertzen duela arraza, erlijio, edo ekonomia irizpideen arabera; eta hala ere, finantziario publikoa jasotzen jarraitzen duela. Nire kezka bakarra da zer izapide burokratiko egin behar izan duten ikastetxe horretako arduradunek diru laguntza horren onuradun izateko, zer deialditara aurkeztu diren; izan ere, gure auzoko eskola publikoan itoginak dauzkagu konpontzeke, eta beldur naiz ez ote garen, utzikeriagatik-edo, Administrazioak barra-barra banatzen dituen sosa alferrik pasatzen uzten ari. •

infraganti PIERROT LADUCHE

Azkaindarra da. Haizeak Esnaur eta Larhun mendietatik dakartzan tronpeta doinuak berak sortuak dira, mendian aritzen baita hainbeste maite duen musika tresnarekin. Bizitzak eman dizkion gaziak tronpetarekin gozatu ditu Pierrot Laduchek. Horregatik maite du hain barruan tronpeta. Azkenaldian, trinketetako pilota partidetak itxaronaldiak tronpetaz janzten ditu.



Tronpetarekin entseguak mendian egiten ditu, lasaitasunean eta inor trabatu gabe.

Denis LAFFITE

Mendiari izena du Pierrot Laduchen etxeak, halaxe baitago, mendiari begira, Larhuni zehazki. Eta mendiak lotura zuzena dauka gure pertsoniarekin, auzoak ere Mendixka izena du, Azkaineko muino batean dago, herrigunetik pare bat kilometrora. «Quartier honetan sortu nintzen duela 66 urte, eta hemen

jarraitzen dut oraino», aitortu digu bere sorlekuaz fier. «Aitari erosi nion lur zati bat eta bertan egin genuen etxea, zurgin gisa aritua naiz lanean, lagunek eskatuta beti joaten nintzen haien etxea egiten laguntzera, eta lurra, paretak, sabaia... hemen ikusten den ia guztia nihaurren eskuekin egina da; etxe honen ondoan dago etxalde nagusia, familia-koa, eta muinoan egonik ere 1983ko uholdeak honaino iritsi ziren, helikopteroz atera

gintuzten hemendik, eta beste auzo batera joan behar izan genuen egoera kalmatu arte. Denbora tarte hori kenduta, beti hemen bizi izan naiz beti».

Gaztetan mendi lasterketan ibiltzen zen, eta orain mendira joateko beste aitzakia eder bat dauka, han egiten baititu tronpetarekin entseguak lasaitasunez. «Bertze nehor kakinarazteko beldurrik gabe». Honela, erran dezakegu haizeak Esnaur eta Larhun

mendietatik dakartzan tronpeta soinuek bere sinadura daramatela. Pierrot, tronpeta jotzailea baita, tronpeta jotzetik bizi ez baina tronpeta jotzeko bizi dena bai. «Aitortuko dizut ni mundu honetan banago tronpetari esker dela, berak salbatu nau heriotzatik, bera izan dut erremediorik onena».

Honela, musikaren doinu gozoak aparte utzi, eta bizitzak eskaini dizkion pasarte gaziak kontatzera bildu zaigu. Eskuin eskua agertzen digu lehenik, hatz lodia falta duela erakusteko. «Kanpainan ari nintzen aitari laguntzen 11 urterekin, baserrian; hodi bat konpontzen ari ginen, lurraren barnean sartu nahian, eta behiak tiraka ari ziren, oharkabea, goldeak lurra jiratzerakoan harri bat atzeman zuen eta zartatu egin zen, eta nire eria arras moztu zidala ohartu nintzen. Min handia sentitu nuen, eta aitik bere petxuaren kontra hartu ninduen, beroa eman eta oina-zea arintzeko. 12 urteko arreba jolasean zebilen inguruan eta eri moztua jaso zuen lurretik, zainak oraindik mugitu egiten zirela erranaz».

Kontakizun garratzaren erdian irriñoa atera zaio, «hor partitu zen nire musikaren istorioa. Aita herriko klikaren xefa zen», lapurteraz mintzo da Pierrot. Gutxitan entzuten diren hitzak baliatzen ditu, eta bere ahoan altxor dirudite, hargatik galdegin diogu «klika» zer den. «Zuek fanfarre deitzen duzuen hori da klika, txaranga, haize eta perkusiozko musika tresnekin osatutakoa». «Tuta» eta «klerona» hitzak ere ez genituen ezagutzen, turutarren modukoak diren instrumentuak direla argitu digun arte. «Aitak, kontsolatzeko, istripu hura burutik ken nezan, klerona oparitu zidan, eta ha-

rekin orenak pasatzen hasi nintzen. Orain etxe anitz erai-ki da hemen, baina garaian lurra eta behiak baino ez ziren; eta, aita, behizain ibilki zelarik, musika jotzen aritzen zen, entseguak egiten gehiago ikasteko, hobetzeko, eta hari beha, gauza bera egitea deliberatu nuen nik, horrela, 13 urterekin herriko klikan sartu nintzen».

TRONPETAK SALBATU ZUEN

Baina zorigaitzak ez ziren hor bukatu, eta zurrun eta hotz egiten digu bere buruaz beste egiteko saiakera baten aitorpena. «Huts egin, eta ospitalean lau hilabete pasa nituen, galduta bezala nengoan, eta iluntasunean ilargia agertu zitzaidan bat-batean; tronpeta nahi nuen esku artean izan, baime-na galdetu nuen, eta sordinarekin jo eta jo ibiltzen nintzen. Geroztik ez naiz gelditu, eta berriro hasteko aukera eman dit». Begietako distirarekin kontatzen digu garrantasun hori etxeko sukaldean, non supazterretik hurbil armairu txiki batean mimo handiz gordetzen dituen bere musika tresna preziatuak.

Bete-bete heldu dio orduan musikaren bidea kontatzeari. «Ez nuen solfeorik ikasi, nik dena belarriz egin dut, orain ere gustuko musika talde bat baldin badut, haren diskoa erosi, entzun, abestiak buruz ikasi, eta gero jotzen ditut». Bitxi egiten zaigu musika jotzeko manera hori, nota zehatzak jakin gabe, belarriz, doinua buruan izanda, bereziki, Pierrot tronpeta jotzaile onona dela badakigulako, fama handikoa inguruotan, giro sortzaile paregabea. «Kantuan aritzen naiz, eta uste dut horrek laguntzen didala ondotik musika belarriz jotzeko». Eta hor hasi zaigu Anje Duhalde

eta Niko Etxartek hain ezagun egin zuten “Eperra” kantatzen, *a capella*, sukalde xokoan. Boz ederrekoa da Pierrot, eta kantu bat bukatu bezain laster bestea kantatzen hasi da, Salamanca-
ra estudiante bidalitakoaren doinu herrikoa entzunaraziz guri. «Azkainen bada Xaharrak talde korala, hogeita hamar bat lagunek osatzen dugu, erretretan daude denak eta ni naiz taldeko gazteena. 83 urte ditu gidari lanak egiten dituen akordeonistak. Hilabetean pare bat aldiz elkartzen gara herriko salan, batzuetan 28 eta beste batzuetan 35, oren bat pasatzen dugu kantuan, tarte-ka musika tresnaz lagundurik». Pierrot, Panpi Laduche pilotari eta kantari famatuaren lehengusua da, eta hark eskaintzen dituen kontzertuetan ere jotzen du tronpeta.

Baina bere ahalez eta talentuz toki anitzetan ezaguna egin da Pierrot azken bi urteotan, trinketetako pilota partidetan tronpeta joz. Nechoiz gertatu gabeko zerbait ekarri du lau paretako pilotaleku hertsira, tradizioz jositako joko honetan ez baita ohikoa aldaketa handiegirik ikustea, eta egun, tronpeta doinua entzutea eta gazteak kantuan ikustea ohiko bilakatzeko bidean da. «Azkainen herriko festak ziren, eta oroitzen dut 2014ko abuztuaren 20a zela; ni tronpeta hartuta joan nintzen trinketera. Ohitura nuen joateko lehenagotik ere, eta beti atzematen nuen arteetan aspergarri zela denboraren joan jina, hau da, pilotariak ur xorta edateko gelditzen zirelarik, edo pausa hartzeko arnasaldiaren xerka ambientza murrizten zen. Betidanik nuen kaskoan, baina ez nintzen atrebitzen, eta Azkaineko festetan lehen geldialdian doinu bat botatzeko intentzioare-

«Ez nuen solfeorik ikasi, nik dena belarriz egin dut. Orain ere gustuko musika talde bat baldin badut, haren diskoa erosi, entzun, abestiak buruz ikasi, eta gero jotzen ditut»

«Trinketetan onesten naute ambientza ematen dudalako, baina ez da dantza eta halakorekin lotzen dudalako jendea, kasu eman behar baita, pilota partida da inportantea»



Azken bi urteetan trinketetako pilota partidetan aritzen da tronpetarekin, itxaronaldiak musikaz janzten. Denis LAFITTE

kin hurbildu nintzen. Sorpresaz hartua izan zen publikoa, murmurioa izan zen hastapeanean, baina gustura hartu zuen jendeak. Trinketean zen Jean-Battitt De Ezkurra Esku Pilotako presidentea eta partida bukaeran zoriontzera hurbildu zitzaidan. Nirekin bi hitz izan nahi zituela esan eta hor aipatu zidan interesatua zela nik zerbait egin nezan pilota partidekin; hiru asteren buruan Sarako festak ziren eta han trinketeko lehia garrantzi-

tsua jokatzeko da beti, beraz, ea hara etortzeko zenbat galde-tzen nuen eskatu zidan, nik urririk egingo nuela erranion, pilotaren alde egiten bainuen, bihotzetik hala ateratzen zaidalako, eta gaur-gaurkoz hala jarraitzen dut, pilota partidetan dohain eskaintzen dut nire soinua».

Azkaine, Senpere, Sara, Baiona, Garindaine, Donapaleu, Baigorri... ia trinket guztietan egona da tronpeta jotzen eta jartzen duen giroa zoragarria

da. «Orain hamabortz egun izan nintzen Baigorri, eta hunkiturik itzuli nintzen etxera, pozik, gazteak enekin batera kantuan ikusita, uros naiz... Parisera ere bi egunez joatekoa nintzen baina azken momentuan atzeratu egin dira pilota partidak, eta ahal dudan arte behintzat jotzen jarraitzeko asmoa daukat».

Oro har, biziki ezagunak dira tronpetarekin jotzen dituen kantuak; “Oi ama Euskal Herri”, “Zazpi Euskal Herriek”, “Xalbadorren heriotzean”, “Itsasoa laino dago”... abesti ezagun anitz daude bere kantu koadernoan. «Bi kaiera ditut, batean 90 abesti ditut, eta besteetan ehunetik gora, haiekin ibiltzen naiz harat-honaka, doinu bat ez bada bestea eskainiz jendeari, eta beti plazer hartzeko. Onesten naute ambientza ematen dudalako, baina ez da dantza eta halakorekin lotzen dudalako jendea, kasu eman behar baita, pilota partida da inportantea, eta hura begira dezala jendeak».

Esku zartak maite dituela airtortzen digu, Hendaia-ko Beltzenian 1.000 pilotazalaren airtzinean frontoi luzean aritzen zen, eta «zoriontsu izan nintzen han, nik doinua eman eta jendea kantuan entzunaz, hartatik erraten dut gustura joango nintzatekeela Hegoaldeko pilota partida baten hutsartetan aritzera».

Giro eder baten piztailea xerkatzen duenak nekez aurkituko du *Pierrot-Trompette* baino prestuagorik bazterrotan. Aspaldiko kantu haren lehen hitzak ere aldatzen ari dira, jada ez da «Txomin jozak tronpeta» kantatzen, «Pierrot jozak tronpeta» baizik. •



Maria Gonzalez Gorosari - @albistetan
EHUko irakaslea

Ustezko kazetariak

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

Sanferminetako bortxaketaren inguruan eztabaidatu da egunero hedabideetan. Hain zuzen, bortxaketa bera zalantzan ipini dute, salatzailea bortxatu zutela agerikoa bada ere: instrukzio-epaileak akusatuak espetxeratu zituen, Fiskaltzak 22na espetxe urte eskatu ditu eta, andrearen pribatasuna babesteko, epaiketa atearik itxita egin dute. Hala ere, hedabideek, ezelako frogarik gabe, eraso ukatu dute, bortxaketa zalantzan ipinita:

- «*La víctima de la presunta violación de 'La Manada' declarará hoy*» ("Abc", 2017/ 11/ 13).

- «*Un audio de la supuesta violación de 'la Manada' demuestra 'que no fue consentida'*» ("El Periódico", 2017/ 11/ 20).

Edo eraso ziurtzat jo arren, erasotakoa salatzailea dela ere ukatu dute!

- «*La presunta víctima de la violación grupal en los sanfermines de 2016 declaró ayer en el juicio*» ("El Correo", 2017/ 11/ 15).

Erasorik egon izan ez balitz, epaiketarik ez litzateke egongo. Epaiaketaren helburua da atxilotuak eraso horien egile direla egiaztatzea. Horregatik, akusatuak "ustezko bortxatzaileak" dira. Hasieran hedabideetara heldu zen informazioak atarira indarrez sartu zutela zioen. Bideoek dagoeneko datu hori ukatzen zuten, eta orduantxe andreak gezurra esan zuela azaldu zuten hedabideek:

- «*Giro en el caso de 'La Manada': la víctima dice que no la metieron a la fuerza en el portal y que no pudo negarse a las relaciones*» ("El Español", 2017/ 11/ 14).

Orain, polizia batek epaiketan esan du andreak grabatu egin zutela esan ziola baina poliziak berak ez zuela salaketan jaso. Norbait sexu jardueran baimenik gabe grabatzea delitua da. Hori salaketan jasotzen ez duen poliziak ez du zigorrik? Alderantziz, berak esandakoa egiaztat jo dute hedabideek, horren frogarik egon ez arren:

- «*El último testimonio del juicio a La Manada tensa la sesión: Ella sabía*

que la grabaron» (Informativos Telecinco, 2017/ 11/ 24).

Hedabideek salatzailearen testigantzari sinesgarritasuna kendu diote, akusatuak gezurretan ibili arren. Salatzaileak ez du bere bertsioa esajeratu eta kalte egiten dioten aldeak ere azaldu ditu. Akusatuak, ordea, begi-bistako gezurrak esan dituzte: andreak sexuan jarraitu nahi izan zuela eta, beraiek ezetz esatean mendeku hartu zuela salaketa ipiniz. Akusatuaren abokatuak ere ageriko gezurrak esan ditu:

- «*La defensa de tres de los acusados (...) sostiene que existen móviles espurios (resentimiento o venganza) para explicar la denuncia, como que se grabaron los hechos, el robo del móvil y las relaciones sexuales traumáticas*» (sareko "Diario de Navarra", 2017/ 11/ 28).

Abokatuak aipatu dituen kasuak delituak dira: sexu jardueran baimenik gabe grabatzea eta mugikorra lapurtzea. Ez du zehazten, ordea, delitu horien salatzailearen beharrezko zergatik salatzen dituen bortxaketagatik. Abokatuaren hirugarren argudioa, gainera, bortxaketa argia da, "traumatikoa" delako. Laburbilduz, akusatuak ageriko gezurrak esan dituzte, aurrekari penalak dituzte eta aurretik antzeko jarduerak izan dute. Hortaz, hedabideek salatzailearen sinesgarritasuna ukatu eta akusatuaren berak hitzez hitz transkribatu dituzte, horien gezurrak zabalduz:

- «*La defensa de 'la manada' sostiene que la chica 'cumplió una fantasía'*» ("Diario Vasco", 2017/ 11/ 28).

Salatzaileari eskatzen dioten arau morala akusatuari aplikatuta, horren errugabeak ez direla baieztatu dezakegu, espetxean urte eta erdi eman arren (errugabe, diote), terapiari ez daudelako. Beraz, ez daukate traumarik eta horixe nahikoa litzateke, defentsa abokatuaren esanei jarraituta, errudunak direla ziurtatzeko. •



Kazetariak, Nafarroako Auzitegiko sarreran. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

3 BEGIRADA:

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GERMAN ELORZA. EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

BILBO, GERMAN ELORZAREN BEGITIK

German Elorza (1910-1983) Bilbora bizitzera joandako kazetari grafiko gasteiztarra izan zen. Kale Nagusian zegoen Casa Lux denda ezaguneko Manuel Torcidaren bi-dez sartu zen argazki mundura. Bere ibilbide profesionalan, Prensa Española, "ABC", "Blanco y Negro" eta Sociedad de Prensa Gráfica taldearentzat lan egin zuen berriemaile grafiko gisa. Azken talde hori euskal jatorriko Nicolas Urgoitik zuzendu zuen, eta, besteak beste, "Mundo Gráfico" eta "Nuevo Mundo" aldizkariak argitaratzen zituen. 1932an, "La Tarde de Bilbao" egunkarian hasi zen lanean Elorza, eta, 1937an, "Hierro" arratsaldeko egunkarian. 1974an lana utzi behar izan zuen, Athletic eta Gijongo Sporting taldeen arteko partidu batean erreportaje bat egiten ari zela istripu bat izan ostean. Elorzaren irudiek eguneroko bizimodua islatzen dute batik bat. 1964an, Hagako Word Press Photo erakusketak haren argazki bat hautatu eta ikusgai jarri zuen. Ezkontza baten irudia zen, apaiz bat ezkongaien aurrean zerraldo erori zen momentua jaso zuena. 2016an Elorzaren familiak Euskadiko Artxibo Historikoari eman zion haren obra, 100.00tik gora negatibok osatua. Artikulua irudiztatzen duen argazkia Bilboko Plaza Biribilean egina da, antzinako Geltokiko plazan alegia, 30eko hamarkadan. Irudi hau German Elorzaren gaineko erakusketa batean dago ikusgai, Euskadiko Artxibo Historikoko Erakusketa Gelan. Honakoa da erakusketaren izenburua: "Hiri baten begiradak: Bilbo, German Elorzak ikusia (1932-1974)".

AURTEN, DURANGOKO AZOKAN GARA rekin

**Bi hamarkada bizi markatu
zituen musika eztanda**

**40 kanta eta 40 talde eta artista,
egin sortu zeneko
40. urteurrenaren oroimenez**

Liburua eta hiru CD




Koedizioa
GARA elkar

IPAR EUSKAL HERRIA IRUDITAN. XX. MENDEA

Gizaldi nahasian zeharreko ibilbide fotografiko zoragarria

Ohitura zaharrak, aldaketa sozialak, nazien okupazioa,
erresistentzia, paisaia, abertzaletasuna, pertsonaiak,
hegoaldeko erbeste berria, euskara, kultura....

Bi liburu (hiru hizkuntzako edizioa: euskara / gaztelania / frantsesa)



7.1.2.0.2



9